

GUATEMALA



**Amaierarik gabeko drama
betiereko udaberriaren herrialdean**

Mundubat

pbi
abriendo espacios para la paz



Martin Xi Cuz tokiko buruzagia Murcielago Lursaileko palma afrikarren plantazioak seinatzten.

Aurkibidea

Aurkezpena Lurra edo bizia	5
I. Estatuaren espoliazioa	7
II. Boterearen hariak.....	13
III. Lurra eta herri indigenak.....	17
IV. Ahots deserosoak.....	29
V. Kolektiboen eskaerak.....	37
VI. Premiazko hausnarketa	39
Bibliografia	41

Kredituak:

IKERKETA: SOFÍA DUYOS

TESTUAK: JUAN TAFUR

ARGAZKIAK: JAMES RODRÍGUEZ

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: CABINET KOMUNIKAZIOA

Mundubat



Diruz laguntzen dute:





El Esfuerzo Tunicokoa den Zurilin arropa garbitzen Tunico ibaiaren ertzean.

Aurkibidea.

Lurra edo bizia: amaierarik gabeko drama betiereko udaberriaren errialdean



Ros Polochic 2 (Iparralde) komunitateko aireko bista.

Lurra arriskuan dago. Negozio bihurtu da, eta lurra babesten duten pertsonak hiltzen dituzte. 40 orduro erail egiten dute bere lurra erreklamatzeko duen, basoak eta ibaiak defendatzen dituen, edo agroindustriaren edo meatzaritzaren enpresa boteretsuei aurre egiten dien pertsonaren bat¹. Mundua atzekoz aurrera. Gizadi moduan, inoiz baino gehiago behar ditugu pertsona horiek, baina erail edo espetxeratu egiten dituzte. Terroristatzat jotzen dituzte, eredu ekonomiko eutsiezinari eta horretarako aukera ematen duen indarkeriari aurre egiteagatik. Korporazio boteretsuek beretzat hartzen dituzte mendez mende herrialde txirotuenak izan diren baliabide na-

turalak, eta lehen munduari saltzen dizkigute palmondo-olioz egindako elikagaiak, plastikoz bilduta, aurre-rapenaren eta zibilizazioaren lorpen handiena izango balitz bezala. Eta erosi egiten ditugu.

Guatemala, zuhaitzen lurraldea, ez da salbuespena. Egunero, gizon-emakume nekazariak hiltzen dituzte, gehienak indigenak, euren eskubideak defendatzeagatik, hau da, euren lurretan bizitzeko eta hura zaintzeko eskubidea defendatzeagatik. Dena den, kontzientzia politikoa handitu egin da, eta erakunde sozial, indigena eta nekazariak ere indartu egin dira; horrek areagotu egin ditu eskaera kolektiboak, oinarritzko osasun- eta hezkuntza-zerbit-

zuak eta ereiteko lurrak eskuratu ahal izateko, eta euren ondasunak espoliatzen eta ingurumena kaltetzen dituzten proiektuei uko egin ahal izateko. Eskaera horiei ahotsa jartzen dieten pertsonak, hau da, giza eskubideen defendatzaileak, euren biziarekin eta askatasunarekin ordaintzen dituzte are pobrezia eta heriotza gehiago eragiten dituen sistema horri kritika egiteagatik.

Itxuraz, Guatemalako Estatuak demokrazian inbertitu zuen, 1996an, Bake Akordioak sinatu eta gatazka armatuari amaiera eman zionean. Baina herrialdeak ustelkerian murgilduta jarraitzen du, eta ez da gai biztanleriaren oinarritzko eskubideak bermatzeko. Nola egin aurre garapenari, desnutrizio kronikoa jasaten duen eta egunero hilketa berrien albisteekin esnatzen den herrialde batean? Nola inbertitu hezkuntzan, osasunean edo justizian, merkatuko legeek gastu sozialean murrizketak ezartzen badituzte eta biltzen den diru kantitate eskasak ustelkeriaren izkintetatik ihes egiten badu? Nola betetzen du Estatuak defendatzaileak babesteko obligazioa, horiei mehatxu egiten dieten enpresek Estatuaren aldetik jarduteko baimena jasotzen badute? Zein erakundetara jo dezakete giza eskubideen defendatzaileak, poliziak harrapatu eta euren lurretatik irtenarazten baditu, armadak zelatatu eta eraso egiten badie, epaileek espetxeratu egiten badituzte eta politikari ustelek eta sare sozialek zigorrik gabe kalumniantzen badituzte?

1 Global Witness erakundearen txostena, 2018ko uztailakoa. <https://www.globalwitness.org/en/press-releases/deadliest-year-record-land-and-environmental-defenders-agribusiness-shown-be-industry-most-linked-killings/>



Rosendo Macu Chocoj bere etxean.

I. Estatuaren espoliazioa

Gabetzen kapitalismoa²

80ko hamarkadatik, Guatemala munduko ekonomian dago txertatuta eta izugarri ugaritu dira lursail landatu handiak, erauzketa-industrien megaproiektuak eta makilak (ehungintza-multinazionalen azpikontratutako lantegiak). Commodities edo bereizketa kualitatiborik gabe merkaturatzen diren ondasunen ekoizpenak guztiz baldintzatu du herrialdearen garapena, eta nazioko nahiz atzerriko inbertsioa erakartzeko abantaila lehiakorrek eskaini behar zaizkie, zergak ordaintzeko salbuespenak eta soldata baxuak, adibidez. Guatemalako lehengaiei beste herrialde batzuek ematen diote balio erantsia, langile kualifikatuak eta industria hobek dituzten herrialdeek alegia, eta Guatemalan jaiotzen diren produktuak ez dira herrialdera itzultzen. Beste merkatu errentagarriago batzuetan saltzen dira, erosteko ahalmen handiagoa dutelako³.

Korporazio multinazional handiak dira eredu horren onuradun nagusiak, multinazional horiek Guatemalako eskaintzen dizkien lehengaiak ateratzen baitituzte. Nazio Batuen Erakundeak (FAO) Latinoamerikako eta Karibeko lurak bereganatzeko

eta atzerriko enpresen esku uzteko prozesuari buruz egindako txostenaren arabera, herrialdea kapital transnazionalera dago atxikita, “nekazaritzako erregaien ekoizpenarekin, petrolioaren esportazioarekin, meatzaritzarekin, hidroelektrizitatearen sorkuntzarekin, basoen erauzketarekin eta turismoarekin lotuta dauden nekazaritzako produktuen lursail landatu estentsiboen (monolaborantzak)” bitartez⁴.

Espekulazioaren eta metaketaren eredu horretan, lurra da, hain zuzen ere, oinarriko ondasuna. Kapitalak haren kontrola bermatzea du helburu, baita baliabide naturalen eta lanerako indarraren kasuan ere, hala, mundu osora hedatuko diren ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko. Globalizazio-prozesu horrek lurra kontzentratzeko⁵ nekazaritza-dinamika berriak ekarri ditu, komunitate indigenen bizitza itoartziz. Logika kapitalistaren dinamikek gero eta lur-eremu handiagoak behar dituzte atzerriko kapitalari atxikita dauden euren jarduera ekonomikoak garatzeko.

Batzuetan, lurraldearen espoliazioa ez dago lotuta gabetzen kapitalismo horrekin —etengabe lurak pilatzea eta merkatuak areagotzea eskatzen du—, espekulazioarekin baizik.

Rocío Silva Santistebanek Peruko erauzketari dagokionez dioen moduan, urrea ez da ateratzen bitxiak eta konputagailuak fabrikatzeko, “bankuen bobedetan gordetzeko eta kapitalismoa are gehiago sendotzen duen status quo hori mantentzeko baizik, krisi-egoeretan aktibo horiek aterako direla mehatxu eginez”⁶.

Hori da GOLDCORP⁷ enpresa kanadarrak Sipacapa eta San Miguel Ixtahuacán (San Marcos) udalerrietako muinoetan ateratzen duten urrearen etorkizun tristea: banku baten bobedan amaitzea, ingurumena eta komunitateen bizitzak suntsitzen dituen sistemaren babeserako. San Miguel Ixtahuacán herriak eskala txikian irudikatzen du ekonomistek honela ezagutzen dutena: “baliabideen maldizioa ondo administratzen ez dituzten eta Estatuaren kontrapisu instituzionalik ez duten herrialdeetan: herrialdeek edo eskualdeek baliabide ez berriztagarrien ustiapenarekiko mendekotasuna dutenean, desberdinkeria, ustelkeria eta gorabehera handiak sortzen dira pertsonen bizi-mailan, eta horrek guztiz galarazten du ekonomia dibertsifikatuaren garapena”⁸.

Marlin meategiaren kasuak ere argi eta garbi islatzen ditu Guatemalako elite kapitalistei ematen dizkien

2 Silva Santisteban, Rocío: *Mujeres y conflictos ecoterritoriales. Impactos, estrategias, resistencias*, 2017. Unibertsitateko irakaslea den defendatzaile eta aktibista perutarren ustez, gabetzen kapitalismoaren testuinguruan txertatu behar dira indarkeria guztiak, lurraldearen espoliazioan, alegia.

3 UNDP: *Más allá del conflicto, Luchas por el bienestar*. Aip. lib., 38.

4 Soto Baquero, Fernando eta Sergio Gómez: *Reflexiones sobre la concentración y extranjerización de la tierra en América Latina y Caribe*, FAO, 2014, 264. orria.

5 Oharra: FAOren arabera, Guatemalan ez da zentzu zorrotzean garatzen *Land Grabbing* edo lur-metaketaren prozesua. Izan ere, 1.000 hektareatik edo herrialde bakoitzaren kasuan kasuko zifratik gorako lurren salerosketan erabiltzen da kontzeptu hori. Gainera, gobernuak salerosketa horretan parte hartu behar du,

erosleak atzeritarra izan behar du eta lurra oinarriko elikagaiak ekoizteko erabili behar da. Ikus Soto Baquero, Fernando eta Sergio Gómez: *Reflexiones sobre la concentración y extranjerización...* FAO, Aip. lib., 255.

6 Silva Santisteban, Rocío: *Mujeres y conflictos ecoterritoriales*. Aip. lib., 26.

7 Oharra: 12 urtetan, Goldrop enpresak 63,2 tona urre atara eta 33.000 milioi ketzal (4.400 milioi US\$) inguru irabazi zituen. Hemen: <https://nomada.gt/identidades/guatemala-rural/viaje-al-pueblo-tras-la-mina-marlin-la-debacle-economica-y-moral-1-2/>

8 Sebastián Escalón: *Viaje al pueblo tras la Mina Marlin: la debacle económica y moral (1/2)*, Nómadas, 2018ko abuztua. Hemen: <https://nomada.gt/identidades/guatemala-rural/viaje-al-pueblo-tras-la-mina-marlin-la-debacle-economica-y-moral-1-2/>

pribilegioak, horien inbertsioak bermatzeko, hain zuzen ere. Tania Palencia ikerlariak honako hauek aipatzen ditu horien artean:

1. Pribilegio makroekonomikoak, Estatuko moneta-, kanbio- eta finantza-arloetako erabakietan parte hartzeko aukera ematen baitzaio banka pribatuari.
2. Pribilegio fiskalak, ukiezin mantentzen baitira enpresari handien errentak.
3. lan-arloko pribilegioak, herritar gehienei soldatak jaistea ahalbidetuz (soldata horiek biziraupenaren mugan daude dagoeneko).
4. Pribilegio feudalak, hala, lur-jabeek nekazari lurrak kendu ahal izateko⁹.

Pribilegioz betetako eredu hori guztiz finkatu zen, 2005ean, Erdialdeko Amerikarekin Merkataritza Askeko Itunak sinatu zirenean, Oscar Berger (2004-2008) presidente zela, Gran Alianza Nacional alderdiarekin. Zentzu horretan, Guatemalako paradisu fiskal baten antza duela esan genezake, nazioarteko merkatuari pribilegioak saldu eta herritar gehienek eskubideak sakrifikatzen baititu, indigena nekazariak eta emakumeak batik bat¹⁰.

Jatorrizko herriek zituzten lurren espoliazioak aurrera jarraitu du, huts legalen eta ustelkeriaren babespean. Askotan, herri indigenei iruzur egiten diete eta, euren lurrik galduta ondoren, lursailetan lan egiteko indarra saldu behar izaten dute,

soldata eskasak truke. Lurraren banaketa bidegabeari —kontinenteko aldarrenetako bat— herritar nekazariak jasotzen dituzten soldaten beharakada drastikoa gehitu behar zaio. Guatemalako biztanleria osoaren ia heren batek (%30) nekazaritzaren sektorean egiten du lan, ia guztiek (%90) modu informalean, hau da, gizarte-segurantzarik gabe eta gutxieneko soldatetik beharoko diru-sarrerak truke. 2019an, gobernuak eguneko 90,16 ketzaletan (11,54 \$) finkatu zuen landa- eta hiri-guneetako gutxieneko soldata, eta 86,46 ketzaletan (11 \$) esportazio-jardueren eta makila-jardueren kasuan (hileko 250 ketzalen hobaria). Lan Ministerioaren arabera, 702 makila-enpresetatik %13k bakarrik betetzen dute baldintza hori¹¹.

Diru-sarrerak oso baxuak dira. Familia nekazarien erdiek baino gehiagok (%53) ezin dute ordaindu oinarrizko elikagaien setoa, eta %76k ezin dituzte ordaindu bizitzeko ezinbestekoa den setoa eta etxeko oinarrizko zerbitzuak; ez dute bizitza duinik edo itxurosorik¹². Herrialdeko biztanleen %35ek muturreko gabeziak bizi dituzte, eta egoera hori gora egiten ari da.

Lan Ikuskaritza Nagusiak 2012an Tikindustrias enpresari (Petén) egindako lehen ikuskapenak emaitza eskandalagarriak eman zituen. Olio-palmondo afrikarraren enpresa bati egindako lehen ikuskapena izan zen, haren ustiapena oso kutsakorra baita. Ikuskatzaileek egindako txostenaren arabera, enpresak "ez du kontratu indibidualik, ordainketen ziurtagiririk, soldata-li-

bururik, IGSSren ziurtagiririk, laneko barne-araudirik edo ordaintze-agindu patronalik; ez dira lanaldiak eta asteko atsedenak betetzen, ez dago jaiegunik, oporrik, edoskitze-ordurik edo amatasun-baimenik, gutxieneko soldata baino gutxiago ordaintzen da, eta ez dute hobaririk edo gabonsaririk ematen"¹³.

Beste palmondo-enpresa batzuek ez zituzten ikuskatzaileak onartu, besteak beste, Reforestadora de Palma (Repsa), Palmas del Ixcán eta Empresa Nacional Agroindustrial (Naisa) enpresek. Hurrengo urtean, Lan Ikuskaritzak Petén departamentuko 90 enpresa ikuskatu zituen. Horietatik 69k ez zuten gutxieneko soldata ordaintzen eta 17k Gizarte Segurantzian inskribatu gabe zituzten langileak.

K'atun versus Mayaland

Nazioarteko lankidetzaren laguntzarekin, eredu horrek biztanleriari eragiten dizkion ondorio suntsitzaileak baretzen saiatu dira zenbait erakunde sozial. Azken hamarkadan, garapenerako plan nazional orekatuagoak aurkeztu dira xede horrekin, baina Guatemalako enpresa taldeek ez dituzte onartzen. Gainera, enpresa-botereak etengabe urratu ditu Bake Akordioak¹⁴, 36 urteko gatazka armatuari amaiera eman ziotenak. Gatazka horretan ere komunitate indigenak izan ziren biktima nagusiak.

2014an, Garapen Plan Nazionala ezagutarazi zen, K'atun: nuestra Guatemala 2032 izenekoa. Planak

9 Palencia Prado, Tania: *Cero punto Cero...* Aip. lib., (X). orria.

10 Vega Cantor (2013), in Rocío Silva Santisteban, Aip. lib., 26.

11 Lan eta Gizarte Aurreikuspeneko Ministerioa: *Inspección General de Trabajo. Plan Operativo marzo 2014 - Empresas amparadas bajo el Decreto 29-89, cuadro general por delegación.* UDEFEGUA, 2017ko txostena, 35. orria.

12 ENCOVI, Estatistika Institutu Nazionalaren 2014ko inkesta. UNDP, 2016, 25. orria.

13 Rodrigo Veliz: *Denuncias, demandas y un estado sordo*, Plaza Pública, 2015eko uztailaren 22a. Hemen: <https://www.plazapublica.com.gt/content/denuncias-demandas-y-un-estado-sordo>

14 Guatemalako enpresariak behin eta berriz urratu dituzte Bake Akordioak (1996), Itun Fiskala (2000), Agenda Nazional Partekatua (2003), "Vamos Guatemala" Berreskuratze Ekonomiko eta Sozialerako Plana (2004-2005), Herrialde Ikuspegiaren proposamena (2005) eta Milurteko Metak.



El Esfuerzo Tunico komunitatearen bista, 350 pertsona dituen Q'eqchi' maia komunitatea da hori.

Plangintza Idazkaritza Nagusiaren (SEGEPLAN) ikuskapena eta Hiri eta Landa Garapeneko Kontseilu Nazionalaren onespena jaso zituen, eta gizarte-sektore guztietako 13.000 ordezkari bano gehiagok parte hartu zuten, Nekazaritzaren, Merkataritzaren, Industriaren eta Finantzen arloetako Elkarrekin Koordinatzeko Batzordeak (CACIF) barne. Planaren helburua da “nekazariak lurraldearen subjektu politiko bihurtzea, bitartekaritza murriztu eta parte hartu nahi duten merkatuak modu subiranoan aukeratu ahal izateko”¹⁵. Bueltan, elite ekonomikoek presioa egin zieten erakunde

publikoei, mayanidad izeneko hori herrialdearen markatzat hartu zezaten: “gurea” den zerbait balira bezala saldu behar ziren maiak, horien alderdi exotikoa bakarrik hartuta¹⁶. Mayaland horren aldeko kanpaina ezin hobeto txertatzen zen Iparraldeko Triangeluaren (Guatemala, Honduras eta El Salvador) Oparotasunerako Itunaren Planean, Estatu Batuak buru zela¹⁷; izan ere, “enpresariak alkateekin eta Estatu Batuetako enbaxadorekin artikulatzea” zuten helburu¹⁸.

Honako hauek ziren Mayaland horren helburu zehatzak:

1. Guatemala nazioarteko zentro logistiko bihurtzea (call center, bodegak)
2. Erdialdeko Amerikarako energia-konexiorako zentro bihurtzea (gasaren eta energia elektrikoaren ekoizpena).
3. Ondasun eta zerbitzuen plataforma esportatzaile bihurtzea (eskualdeko ehungintza- eta agroindustria-kateak).
4. Nazioarteko zentro turistiko bihurtzea¹⁹.

Galtzaile handiak

Politika neoliberalak okerragotu egin dituzte guatemalarrak gehienak bizitzak, eta eragina izan dute herrialdeko Giza Garapenaren Indizean (GGI). 2000. urtetik 2006. urtera, indize hori %2,3 inguru hazi zen urteko, baina gero bere horretan geratu zen, eta ez da apenas handitu hamarkada osoan²⁰. 2005ean, Merkataritza Askeko Itunak sinatu ziren eta, horrekin batera, genero-desberdintasunaren aurkako aurrerapen guztiak izoztu ziren: emakumeen giza garapenaren indizea gizonena baino baxuagoa da oraindik ere, proportzio berean²¹. Gainera, desberdintasuna egiturazkoa da. Guatemalarrak Giniren koefiziente okerrenetako bat du mundu osoan (0,63)²².

15 Hiri eta Landa Garapeneko Kontseilu Nazionala (CNDUR): K'atun: nuestra Guatemala 2032.

16 Palencia Prado, Tania: *Cero punto Cero...* Aip. lib., 83.

17 Oharra: Estatu Batuak buru duen Oparotasunaren Itunerako Planak Estatu Batuetara joaten den migrazioa geldiaraztea du helburu. Planaren bitartez, Munduko Bankuaren, Garapenerako Banku Interamerikarraren eta Estatu Batuetako Gobernuaren bitartez jasotako 25.000 milioi dolar mugiarazi nahi zituzten. 2016tik aurrera, Estatu Batuetako gobernuak baliabide guztien %20 injeztatu zituen, hau da, mila milioi urtean, bost urtez. Jimmy Morales presidentek K'atun-arekin lotzen du Oparotasunerako Plana, eta herrialdeko sei eskualdetako 51 udalerritan ardatzen dela dio (gehienak indigenak), Elektrifikazio Plan Nazionalarekin, Iparraldeko Zehar Eskualdearekin eta ozeanoarteko merkataritzarekin lotuta. Hiru oinarri horiek inbertsio transnazionalak erakartzea dute helburu.

18 PRONACOM programaren idazkari Acisclo Valladares jaunak honako hau esan zuen, 2016an, Iparraldeko Triangeluaren Oparotasunerako Itunaren Planari dagokionez: “enpresariak alkateekin eta Estatu Batuetako enbaxadorekin artikulatzea ahalbideetako du”. Palencia Prado, Tania: *Cero punto Cero...* Aip. lib., 83.

19 Palencia Prado, Tania: *Cero punto Cero...* Aip. lib., 70.

20 Oharra: 2008an, indizea 0,48koa zen. Gaur egun, 0,49koa da.

21 Gizonen GGI 0,52koa da eta emakumeena, berriz, 0,46koa. Genero Desberdintasunaren Indizea (GDI) 1 da berdintasuna erabatekoa denean, eta 0 giza garapenaren neurtutako gaitasunetan erdiespenak gizonenak bakarrik lortu dituztenean. 2014an 0,89koa zen eta, beraz, generoen arteko etenak behera egin du pixkanaka, 2006an bere horretan geratu arren. Ikus UNDPk egindako txostenaren 2.6 grafikoa: Más allá del conflicto, Luchas por el bienestar... Aip. lib., 22.

22 Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP): *Desigualdad y pobreza limitan desarrollo humano en las regiones del Norte de Occidente*, 2017ko azaroaren 2a.



Jose Pop banku batean atseden hartzen.

Zerga-bilketaren murrizketa dela-eta, eredu sozial eta ekonomiko horrek murriztu egin du gastu soziala²³, eta 2000. urtekoaren parekoa da gaur egun²⁴. 2006tik 2009ra bitartean, Estatu Batuetatik bidali ziren igorpenak (1,2 milioi) urte horietako zerga-gastuen antzekoak izan zirela uste da, 2016ko zifraren antzekoa²⁵. Igorpen horiek sekulako babesa eman diete familiei, azken 15 urteetan modu drastikoan murriztu baitzaizkie soldatak²⁶, nekazari batez ere.

Merkataritza askeko politikek bereziki eragin diete herri indigenei, eta GGI indize txikiena dute²⁷. 20

urte igaro dira 1996an Bake Akordioak sinatu zirenetik, eta herri indigenek horien zain jarraitzen dute. Bake Idazkaritzaren arabera, Herri Indigenen Identitateari eta Eskubideei buruzko Akordioak berrin hartzen dituen xedapenetatik %80 baino gehiago bete gabe daude oraindik, baita Gai Sozioekonomikoei eta Nekazaritzako Egoerari buruzko Akordioaren hiru laurdenak ere²⁸. Maien, xinken eta garifunen herriei eragiten dien arrazismoa oso sakona eta orokorra da, eta "de facto arraza-segregazioa egiten da"²⁹. Herri horiek jasaten duten diskriminazio legala, interpersonala, instituzionala eta estrukturala

argi eta garbi islatzen da egunerokotasuneko esparru guztietan. Komunitate indigenen hezkuntza-baldintzak penagarriak dira³⁰. Biztanle indigenen batez besteko eskolatzea 3 urtekoa da. Bost umeetatik batek ez du seguruenik lehen hezkuntza ere amaituko; hamar heldutatik seik ez dute amaitu.

Metaketaren erazketa-ereduak —meataritzan batez ere— ondorio sakonak ditu, halaber, herri indigenen bizitzetan, batik bat emakumeen bizitzetan. Zentzu horretan, honako hau dio Rocío Silvak: "lurraldean erabilera kontrolatzen dute, baina, aldi berean, ez dituzte ia ezertxo ere zaintzen ingurumen-inkaketuek biztanleengan eragiten dituzten osasun-arazoak. Ur-iturrien, lurzoruen eta airearen kutsadurak, esaterako, gaixotasunak sortzen dituzte umeen artean, eta animaliak ez dira emankorrak edo jangarriak. Mota horretako egoerek arriskuan jartzen dute pertsonen bizia. Nork jasaten ditu egoera horiek? Gehienetan, emakumeek"³¹.

Herrialdeak BPGd osoaren %3,15 bideratzen du osasunaren sektore-³², eta Guatemalako biztanle guztien %73k ez du osasun-asegururik. Etxebizitzen saneamendu- eta kalitate-baldintzak oso ezegonkorak dira, indigenen artean batez ere. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren (NBGEGKB) arabera, Guatemalako

23 BPGd-ren ehunekoaren arabera, 2015ean, gastu soziala %32koa zen hezkuntzan eta kulturaren, %16koa osasunean eta gizarte-laguntzetan, %14koa segurtasunean eta justizian, eta %0,1ekoa etxebizitzan. Ikus *Más allá del conflicto...* Aip. lib., 42.

24 Álvaro Colom jaunaren gobernuan, herrialdeak inoiz baino gastu sozial handiagoa izan zuen osasunean eta gizarte-laguntzetan. Oso gutxi jaitsi zen segurtasunean eta justizian, baina are gehiago hezkuntzan, zientzian eta kulturaren, eta hain zuzen ere hor inbertitu zuen gehien Óscar Berger jaunak, Álvaro Colomen aurreko presidentea. UNDP: *Más allá del conflicto...* Aip. lib., 42.

25 UNDP: *Más allá del conflicto...* Aip. lib. 23. 1996ko Bake Akordioaren aurretik, gastua BPGd-ren %10ekoa zen osasunean eta gizarte-laguntzetan. Gaur egun, berriz, %16koa da, 2000. urtean %23ra iritsi ondoren.

26 UNDP: *Más allá del conflicto...* Aip. lib., 23.

27 Altiplanoko departamentuek (Alta Verapaz, Quiché eta Huehuetenango) —indigenak dira gehienak— dute GGI baxuena.

28 Bake Idazkaritza, Agenda Política de la Paz 2017-2026 (2017), 17. eta 18. orriak. Herri Indigenen Akordioaren %17,49 bakarrik bete da, eta Gai Sozioekonomikoei buruzko Akordioaren %34,39.

29 Nazio Batuen Batzar Nagusia: *Errelatore bereziak Guatemalara egindako bisitaren ondorengo herri indigenen eskubideei buruzko txostena, A/HRC/39/17/Add.3, 2018ko abuztuaren 10a, 3. orria. Hemen: <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G18/246/46/PDF/G1824646.pdf?OpenElement>*

30 UNDP: *Más allá del conflicto...* Aip. lib., 27.

31 Silva Santisteban, Rocío: *Mujeres y conflictos ecoterritoriales*, Aip. lib., 18.

32 SEGEPLAN: Agenda 2030 para el desarrollo sostenible, Aip. lib., 92.

etxebizitza guztien %40 inguruk ez dute edateko urik³³. Emagin indigenek oso eginkizun garrantzitsua betetzen dute euren komunitateetan, herrialdeko jaiotza guztietatik gutxienez %34tan laguntzen baitute³⁴. Emaginen eginkizun baliotsu hori txertatzea da, hain zuzen ere, gaur egungo osasun-sistemaren erronketako bat, betiere, kulturarteko elkarrizketek emaitzak ematen badituzte³⁵.

Laburbilduz, emakumeak eta nekazariak —gehienak indigenak— dira galtzaile nagusiak. Biztanleria osoaren %60 pobrezian bizi da eta pobrezia hori landa-eremuetan pilatzen da; nekazarien %79,2ari eragiten dio³⁶. Herri indigenak dira guztietan kaltetuenak, %79,2 pobrezian bizi baitira; 5 urtetik beherako ume indigenen %61,2k desnutrizio kronikoa jasaten dute³⁷.

Etenik gabeko indarkeria

Arestian esan dugun moduan, heriotzak ere eragiten ditu gabetzetan oinarritutako kapitalismo horrek. Egunero, egunkariak erru-

gabeen inguruko albisteak ematen dituzte, ia beti titulu sentsazionalistekin. Erdialdeko Amerikako Iparraldeko Triangelua (bertan dago Guatemala) da munduko eskualde arriskutsuenetako bat³⁸. 2017an, 4.553 lagun hil zituzten indarkeria erabiliz, aurreko urtean baino zertxobait gutxiago³⁹. Dena den, lintxamenduen kopurua %40 handitu zen⁴⁰: gatazkak konpontzeko orduan gero eta gehiago jotzen da kontu-garbitze kolektiboetara. Biztanleria indigena nagusi den eta jurisdikzio indigena ezartzen den lekuetan erregistratzen dira indarkeriazko heriotza gutxien⁴¹.

Oraindik ere patriarkatua nagusi den gizarte horren ondorioak jasaten dituzte emakumeek: ikusezin jarraitzen dute eta ez dute tresnarik jaiotzetik jasaten duten diskriminazioari aurrea hartzeko. Emakumeak babesteko ematen diren legeak etengabe urratzen dira, inolako ondoriorik gabe. Gizonen artean jaisten ari da indarkeriazko heriotzen kopurua, baina emakumeen kasuan izugarri hazi da (662 feminizidio)⁴². Noizean behin, torturatuta hiltzen diren emakumeen

eta sakan edo zakarrontzietan botata agertzen diren gorputzen berri ematen dute egunkariak, mespretxuzko adierazpenak eginez. Askotan, mara edo gaizkile-taldeek emakumeen gorputz txikituak erabiltzen dituzte euren mezuak helarazteko⁴³. Ezin dira mugatu duela gutxiko iragan genozidak eragin zituena erailketa sadiko guztiak, ezta gaur egungo lan-esplotazioaren formak ere⁴⁴.

Heriotzak baino are gehiago, izugarri areagotu dira emakumeek euren etxeetan, lanean, bide publikoan eta atxiloketa-zentroetan (pilaketan⁴⁵ eta sexu-indarkeriaren biktimak dira azken horietan) jasaten⁴⁶ dituzten indarkerien salaketak. Genero-diskriminazioak gizartearen esfera eta maila guztiak zeharkatzen ditu, eta huraxe dago odoluste honen atzean ere, kontrolik gabeko milaka arma, krimen antolatua, marak, zigorgabetasuna eta konpondu gabe geratu den gatazka armatuaren herentzia (emakumeak izan ziren kaltetu nagusiak) alde batera utzi gabe. Horrek guztiak sekulako erronka bihurtu du emakumeen egunerokotasuna.

33 Osasun Publikoaren eta Gizarte Laguntzaren Ministerioa, Estatistika Institutu Nazionala, Presidentetzaren Plangintza eta Programazio Idazkaritza: *Informe Final VI: Encuesta Nacional de Salud Materno Infantil 2014- 2015*, Guatemala, 2017ko urtarrila. NBGEGKBk Guatemalako bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko txostenean aipatzen da, Aip. lib., 19.

34 Estatistika Institutu Nazionalaren Bizi Baldintzei buruzko Inkesta Nazionala, 2014, I. liburukia, 2016ko urtarrila, 172. orria.

35 NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko txostena (2017), 21. orria.

36 *Berdina*.

37 SEGEPLAN: *Agenda 2030 para el desarrollo sostenible: Examen nacional voluntario*, 2017, Guatemala, 66. orria.

38 Amnesty International *erakundearen 2016/2017ko txostena*, X. orria (ikus Honduras).

39 NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, Aip. lib., 10. Oharra: Beherakada %2,4koa da 2016. urtearekin alderatuta.

40 NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, 10. orria.

41 Oharra: Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak baieztatu duenez, Totonicapán, Sololá, San Marcos eta Quiché —indigenak dira nagusi— dira indarkeriazko heriotza gutxien dituzten departamentuak. Haren arabera, ezinbestekoa izango litzateke jurisdikzio indigenak ezartzen dituen zigor batzuk giza eskubideen espa-

ruarekin bateragarriak direla bermatzea. Ikus NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, 10. orria.

42 Oharra: Giza Eskubideen prokuradoreak adierazi zuenez, 2017ko urtarriletik urrira 28 lagun erail zituzten lintxamendu bidez, 2016an modu horretara hildakoen %40 baino gehiago. Ikus NBE, 10. orria.

43 Emakumeen gorputzetan idatzita dagoen indarkeriari dagokionez, ikus Rita Laura Segato: *La guerra contra las mujeres*, *Traficantes de Sueños*, 2016. Hemen: https://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/map45_segato_web.pdf

44 Emakumei betiereko lanaldiak ezartzen zaizkie eta, beraz, horiek gauzatzeko behar izaten dute etxera, oinez, euren auzo apaletara. Hirira emigratu duten emakumeek, batik bat, ez dute babesteko dituen sare sozialik eta, itzultzen ez direnean, inork ez du horien falta sumatzen.

45 Emakumeen indarkeriazko heriotzen kopurua %8 hazi zen 2017an. Urte horretan, Ministerio Publikoak 14.750 salaketa erregistratu zituen emakumeen aurkako indarkeriarekin lotuta, eta feminizidioetan espezializatutako auzitegiek, berriz, 6.364 (aurreko urtean baino %13 gehiago). Guztira, 2.181 epai eman ziren, horietatik 1.647 kondenatzaileak. Ikus NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, 16. orria.

46 Oharra: Emakumeen kartzeletan, %345eko pilaketak erregistratu dira (gizonek %227ko pilaketak jasaten dituzte). Ikus NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, 11. orria.



Elvia Patricia Caal Coco bere baratzetik jasotako manioka zuritzen.

II. Boterearen hariak

Guatemalaak bizi duen eskubideen urraketa-egoera horren aurrean, euren askatasunak eta funtsezko eskubideak bete daitezela eskatzen dutenek herrialdearen benetako boterea duten egitura korporatiboegi egin behar diete aurre. Botere-egitura horiek behin eta berriz behartu dute Estatua, euren agendak onartu ditzan, Bake Akordioetan jasotzen den agenda eraldatzailearen kaltetan. Eredu politikoa, ekonomikoa eta soziala bide horretatik finkatu da, eta esplotazioan eta emakumeen eta herri indigenen diskriminazioan oinarritzen da. Eredu horrek indarkeria iraunarazten du, ustelkeriari esker mantentzen da eta ia erabateko zigorgabetasunarekin atzeraelikatzen da. Hona hemen giza eskubideen defendatzaileak mugitzen diren agerlekuak menperatzen dituzten lau egiturak:

GUATEMALAKO ERAKUNDE KRIMINALAK. InSight Crime Fundazioak Erdialdeko Amerikako erakunde sofistikatu eta arriskutsuenetakoen artean katalogatu ditu. Fenomeno horri buruzko bere azterketan, honako hau adierazten du Fundazioak: "armadako kide ohiek, inteligentzia-agentziek eta poliziaren kide aktiboek parte hartzen dute erakunde kriminaletan. Legez kontrako drogak iparraldera aldera garraiatzea da horien eginkizun nagusia, baina, horrez gain, marihuana eta mitxoleta hazten dute, eta pertsonen trafikoan, bahiketetan, estortsioan, diru-garbiketetan, armen kontraban-

doan, legez kontrako adopzio-sareetan, narkotrafikoan eta legez kontrako beste jarduera batzuetan parte hartzen dute. Askotan, Mexikoko, Kolonbiako eta Erdialdeko Amerikako beste herrialde batzuetako taldeekin jarduten dute. Hedatzeko eta Erdialdeko Amerikako beste herrialde batzuetako talde kriminalen buru izateko potentziala dute⁴⁷".

Sare kriminal horiek Estatuko eta herrietako administrazioaren zati handi batean sartzea lortu dute. Osaera zehaztugabea duen oinarri soziala izaten dute, loturak dituzte enprekin eta segurtasun-indarrekin, funtzionarioei estortsioa egiten diete eta krimen ugari egiten dituzte. Gainera, horiek isilean mantentzen saiatzen dira, delitu egiten jarraitzeko. Zigorgabetasunak babesten duen botere paralelo horren ondorioak guztiz suntsitzaileak dira⁴⁸.

GUATEMALAKO ARMADA. Argitze Historikorako Batzordearen (CEH) arabera, armada izan zen 36 urte iraun zituen gatazka armatu hartan gauzatutako nazioarteko krimen anitzen eta larrien arduradun nagusia, eta boterea bidegabe erabiltzen jarraitu du ordudanik. Aurrerago azalduko dugun moduan, armadak gaur egungo presidente Jimmy Morales babestu du herrialdeko zigorgabetasun orokorraren aurka borroka egiten duten organoen (Guatemalako Zigorgabetasunaren Kontrako Nazioarteko Batzordea, adibidez) kontrako gurutzadan, eta

herritarrak erakartzeko sekulako indar soziala du gainera. Guatemalako Beterano Militarren Elkartek (AVEMILGUA) jakinarazi duenez, 44.000 lagunek baino gehiagok babesten dute Armada, horietatik gehienak patruilari zibil ohiak (PAC)⁴⁹, gerran armadarekin borroka egitera behartu zituzten landa-eremuko gizonak.

ALDERDI POLITIKOAK itunak egiten dituzte, armadaren hainbat fakzioekin eta enpresari handiekin, boterera iritsi ahal izateko eta, gainera, legez kontra finantzatzen dira askotan. CICIGen arabera, legez kontra finantzatu dira hiru alderdi, Gobernuan dagoen alderdia barne, eta zigor-arloko prozesuak abiarazi dira enpresa finantzatzaileen kontra⁵⁰. Legegintzaldi honetako alderdi politikoei ustelen ituna adostu zuten, 400 delituren (ustelkeria barne) zigorgabetasunerako zenbait neurri, alegia. Herritarren presioak eraginda, neurri horiek baliogabetu egin ziren. Guatemalako Errepublikako lau presidentek kontuak eman behar izan dituzte justiziaren aurrean: Ríos Monttek, Alfonso Portillok, Álvaro Colomek eta Otto Pérez Molinak. Álvaro Arzú, Bake Akordioak sinatu zituen eta hiriburuko alkate izandako presidentea, hil egin zen justizia hura ikertzen ari zenean.

ENPRESA-ELITEEK botere handia dute alderdi politikoei dagokienez. Mesede egiten dieten legeak indarrean jartzera behartzen dituzte, eta epe luzeko enpresa-lizentziak

47 Insight Crime (Krimen Antolatuaeren Ikerketa eta Azterketa) fundazioaren eginkizuna da Latinoamerikan eta Kariben segurtasun nazionala eta herritarren segurtasuna mehatxupearantz jartzen duen kausa nagusia aztertzea: krimen antolatua. Hemen: <https://es.insightcrime.org/guatemala-crimen-organizado/guatemala/>

48 Palencia, Tania: *Cero punto Cero...* Aip. lib., 56. orria eta hurrengoak.

49 AVEMILGUAko kide Alfonso Ruiz Álvarezek hitzak, 2016ko urtarriaren 15a. Tania Palencia Prado: *Cero punto Cero*, Estado de los derechos de los pueblos indígenas en Guatemala a 20 años de la firma de la Paz, Serviprensa, Guatemala, 2017ko otsaila, 31. orria.

50 2017ko abuztuaren, Guatemalako politikaren finantziarioari buruzko ikerketen emaitzak aurkeztu zituzten Ministerio Publikoak eta CICIGek, eta hala izan dela frogatzen dute.

lortzeko presioa egiten diete, herrialdea hurrengo hamarkadetakarako estutasunean jarri arren. Askotan, mesedeen truke finantzatzen dituzte. Nazioko nahiz nazioarteko enpresa-korporazioek —udalerrietan sartzen dira euren proiektuak abian jartzeko, eragindako herritarrei kontsulta egin gabe— beste egitura korporatiboen boterea erabiltzeko tentazioa sentitzen dute euren jardunetik eratorritako gatazka sozialak konpontzeko.

Prozesu judizialak eta lotura konplexuak

Lau egitura horien arteko loturak oso konplexuak dira. Negozioak egiteko jotzen dute batak bestearengana, eta orduan egiten dira ikusgai, edo justiziak estutzen dituenean. Gatazka armatuan nabarmenak izan ziren armadaren eta enpresa-oligarkien arteko loturak⁵¹. 2013an bertan behera utzi zuten Ríos Montt presidente ohiaren eta haren inteligentzia-zuzendari Rodríguez Sánchezen aurkako genozidioagatik epaiketa, Nekazaritzaren, Merkataritzaren, Industriaren eta Finantzen arloetako Elkartek Koordinatzeko Batzordeak (CACIF) Konstituzionaltasun Gorteari egindako presioen eraginez. Horrek argi eta garbi islatzen du lotura horiek indarrean jarraitzen dutela.

Bestalde, krimen larriengatik atxilotutako zenbait militarren abokatuek ere enpresak eta krimen antolatua defendatzen dituzte⁵². Horren

adibide paradigmaticoen artean, “Pandoraren kutxa” dugu, Byron Lima armadako ofizialak kartzelatik (1998an zigortu zuten, Juan Gerardi apezpikua hiltzeagatik) zuzendutako delitu-sarea. Kasuaren defentsan nahastuta dago Moisés Galindo ere, Ríos Montt⁵³ diktadorearen eta Errepublikako presidente ohi Álvaro Arzúren (hilda dago) defendatzailea.

Egitura korporatiboen ere gero eta eragin handiagoa dute, prentsarekin duten lotura dela eta. Horrela, bada, prentsak horien alde dauden kazetarien artikulua argitaratzen ditu, baita armadak edo enpresek ordaindutako atalak ere, defendatzaileak estigmatizatzen eta beldurtzen dituztenak. Oxe enpresaren proiektu hidroelektrikoaren eta San Rafael meategiko proiektuaren kasuan, “sektore pribatuko aktore batzuek publizitate-kanpainak ordaindu zituzten, hala, auzitegiei proiektuen lizentziak bertan behera utzi ez zitazela eskatzeko, bestela, horrek garpak ekonomikoan ondorio kaltegarriak izango zituelako”⁵⁴.

Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen eta erakundeen aurkako erasoak ere prozesu judizialak aurrerapenekin daude lotuta, horietan akusatu militar moduan agertzen baitira. Prozesu horiek atzerapen luzeak eta bidegabeak izaten dituzte, babes eskeko errekursoak gehiegi erabiltzeagatik eta akusatuen abokatuen beste azpijoko batzuegatik. Ríos Montt bera ere 2018an hil zen, bost urte lehenago 80 urteko espetxe-zigo-

rra agindu zion (genozidioagatik eta gizatasunaren kontrako krimenak egiteagatik) epaiketa errepikatzen ari zirenean.

Gerardiren exekuzioagatik edo Ríos Monttten kontra egindako epaiketetan bezala, gaur egun botere korporatiboen aurka aurreratzen ari diren prozesuetan nabarmena da defendatzaileen kontrako indarkeria. Horren adibide dugu CREOMPAZ komandoaren kasua, Latinoamerikako gune militar batean aurkitutako hobi komunikandienari buruzkoa (Cobán base militarrean, Alta Verapaz). Bertan, Terrorismoaren Kontrako Fundazioarekin⁵⁵ lotutako goimailako militar bat zegoen arduradun gisa sindikatuta. Fundazioko presidentek, Ricardo Méndez Ruiz jaunak, difamazio-kanpaina abiarazi zuen zenbait defendatzaileen aurka. 2013an, giza eskubideen prokuradoreak gomendatu zion “seinalamendurik ez egiteko giza eskubideen defendatzaileak kriminalizatzeko”. Era berean, adierazi zuen erakunde horrek sustatutako gorrotoaren diskurtsoak urratu egin zituela defendatzaileen duintasunaren, osotasunaren, berdintasunaren, ekiteko askatasunaren eta elkartzeko eskubideak⁵⁶.

Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Babes Unitatea (UDEFEUGA) ere kezkatuta agertu da pertsona eta erakunde defendatzaileen kontrako jazarpen eta zaintzen igoera dela eta. UDEFEUGAren arabera, “begien bistakoa da inteligentzia mi-

51 Enpresariak eta militarrek genozidioan izan zuten aliantzan gehiago sakontzeko, ikus Martín Rodríguez Pellecer: *Los militares y la élite, la alianza que ganó la guerra*, Plaza Pública, 2013. Hemen: http://www.plazapublica.com.gt/sites/default/files/la_elite_y_los_militares_0.pdf

52 Ikus CUCeko abokatuei egindako elkarrizketa, 2018ko urria.

53 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa: *NBGEK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueren buruzko 2017ko txostena, A/HRC/37/3/Add.1*, 2018ko otsailaren 9a, 6. orria.

54 NBGEKKB, 2018, Aip. lib. 8.

55 Ricardo Rafael Méndez Ruiz Valdés da Terrorismoaren Kontrako Fundazioko presidentea, Cobán (Alta Verapaz) gune militarreko arduradun Ricardo Méndez Ruiz Rohrmoser (hilda) jaunaren semea. Hobi horretan mila gorputz baino gehiago berreskuratuta dituzte dagoeneko. Creompaz kasua.

56 Amnesty International: *Defendemos la tierra con nuestra sangre - Personas defensoras de la tierra, el territorio y el medio ambiente en Honduras y Guatemala*, 2016, AMR 01/4562/2016, 44. orria. Horrekin lotuta, ikus Ricardo Méndez Ruiz responsable de violaciones de derechos humanos, Prensa comunitaria. Hemen: <https://comunitariapress.wordpress.com/2013/08/27/ricardo-mendez-ruiz-responsable-de-violacion-de-los-derechos-humanos/>



Comité de Unidad Campesinako zuzendarien batzorde nazionalako kide den Esteban Hermelindo Cux, Panzosen duen bulegoan.

litarraren eredu zaharrekin lotutako eskemak berraktibatu egin direla, herritarrak arrisku larrian jarritz, bereziki giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak⁵⁷.

Molina Theissen⁵⁸ epailetan ere indarkeria izan da ustelkeriaren eta zigorgabetasunaren aldeko akto-reen erantzuna⁵⁹. Bertan, Romeo Lucas Garcíaren diktadurako hainbat goi-kargu militar zigortu zituzten⁶⁰. Epaiketa horien aurrerapenak Amnistiaren Legea onartzeko aukeraren inguruko eztabaida politikoa berpiztu du. Lege horren onspena sekulako atzerapausoa izango litzateke giza eskubideei dagokienez, gerrako krimenengatik zigortutako

hainbat pertsona utziko bailituzke aske, eta horrek arriskuan jarriko lituzke zigorgabetasunaren aurka etenik gabe borroka egin duten abokatuak, lekukoak, perituak eta erakundeak.

Bestalde, elite ekonomikoen botereak sekulako zartada jasan zuen zenbait erabaki judizialen ondorioz, horien inbertsioak geldiarazi eta herri indigenen alde aurretiko kontsulta-eskubideak aitortu baitzituzten. Horrela, bada, RENACE gune hidroelektrikoko, Tahoe Resources enpresaren El Escobal meategiko eta TRECSA enpresaren proiektuak geldiarazi zituzten⁶¹. Erabaki horiek erreakzio sutsuak eragin dituzte enpresen eta Industria Gan-

beraren aldetik, baita horiek kooptatu dituzten tokiko biztanleriaren beraren aldetik ere. Aurrerago sakonduko dugun bezala, azken urteetan Guatemalan erail dituzten defendatzaile gehienak nekazarien elkarreterako kideak dira, megaproiektuen⁶² aurrean, euren lurrak eta baliabideak defendatzen dituzten elkarreterakoak.

CICIGen lana

Giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeek funtsezkotzat jotzen dute Zigorgabetasunaren Kontrako Nazioarteko Batzordeak (CICIG) egiten duen lana —krimen antolatuari eta Estatuan txertatutako aparatu klandestinoei aurre egiteko sortua—, oso emaitza garrantzitsuak eman baititu. Batzorde horrek Ministerio Publikoarekin batera egindako ikerketei esker, Estatuko goi-funtzionarioak barne hartzen zituzten delituzko sare konplexuak desaktibatu ahal izan dira; izan ere, funtzionario horiek hura kontrolatzen saiatu ziren, euren probetxurako eta zigorgabetasuna bermatzeko. Guatemalako Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak 2017ko bere txostenean erregistratu zuenaren arabera, Estatuaren hiru botereetan txertatu dauden goi-mailako 351 funtzionario publiko (tokikoak nahiz nazio osokoak) ari dira ikertzen, ustelkeria-kasuengatik⁶³.

57 Oharra: UDEFEGUAK giza eskubideen pertsonen eta erakundeen kontrako jazarpen eta zaintzen 39 kasu erregistratu ditu. UDEFEGUA: Por el derecho a defender derechos, 2017ko txostena, 2018ko maiatza, Guatemalako Hiria, 12. orria.

58 Kasu honetan, Emma Molina Theissen bahitu, legez kontra atxilotu, torturatu eta sexualki bortxatzeagatik zigortu zituzten, baita haren anai Marco Antonioren desagertzeagatik ere.

59 UDEFEGUAREN 2017ko txostena, Aip. lib. 2.

60 Oharra: Honako hauek izan ziren kasuan prozesatu zituzten militar erretiratuak: Manuel Benedicto Lucas García, Armadaren Estatu Nagusiko buru ohia; Manuel Antonio Callejas Callejas, Inteligentzia Militarreko buru ohia; Quezaltenango gune militarreko goi-kargu ohia, Francisco Luis Gordillo Martínez komandante ohia, Edilberto Letona Linares komandanteorde ohia eta Hugo Ramiro Zaldaña Rojas inteligentzia militarreko ofizial ohia. Ikus: [ht-](#)

[tps://www.prensalibre.com/guatemala/justicia/caso-molina-theissen-militares-retirados-condenados-desaparicion-forzada/](https://www.prensalibre.com/guatemala/justicia/caso-molina-theissen-militares-retirados-condenados-desaparicion-forzada/)

61 UDEFEGUAREN 2017ko txostena, Aip. lib. 3.

62 Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Babes Unitateak (UDEFEGUA) emandako azken datuen arabera, 2018ko urtarrilaren 1etik ekainaren 8ra 13 defendatzaile hil zituzten, gehienak nekazarien elkarreterako kideak: bost Nekazarien Garapen Batzordekoak (CODECA) ziren, hiru Altiplanoko Nekazarien Batzordekoak (CCDA), bat azukre-kanaberaren agroindustriak eragindako komunitateetakoak, beste bat Chortí Morola komunitate indigenakoa, eta beste bat Quetzaltenangoko Lurraren Pastoral Sozialeko kidea. Nekazarien Batasunaren Batzordeko (CUC) 2 kide ere hil zituzten.

63 CICIGek 2007tik 2017ra eskainitako informazioa. Ikus CICIGen hargarrien txostena, A/HRC/31/3/Add eta A/HRC/34/3/Add.1.

CICIGen lana erabakigarria izan zen Otto Pérez Molina presidente ohiaren (2012-2015) dimisiorako, “La Línea” izeneko aduanako iruzur-sarearen antolatzaile eta onuradun nagusitzat jotzea lortu baitzuten, Roxana Baldetti presidenteorde ohiarekin eta bere gobernuko beste goi-kargu batzuekin batera⁶⁴. Pérez Molinak —genozidioaren garaian, kargu garrantzitsuak izan zituen Guatemalako Armadan— Errepublikako Presidentetzari uko egin zion 2015eko irailean, eta auzitegien justiziaplean jarri behar izan zuen. Urte hartako abuztuan milaka guatemalarrak irten ziren kaleetara, haren dimisioa eskatzera⁶⁵.

CICIGen ikerketak funtsezkoak izan ziren, halaber, enpresa handien “etekin” garrantzitsuak argitara emateko. “Influentzia Trafikoaren” kasuan, adibidez, Reforestadora de Petén, S.A.⁶⁶ enpresak etekina atera zuela jakinarazi zuen, kreditu fiskala itzultzeko espedienteen legez kontrako azkartze-sarearen bidez.

Gaur egungo presidente Jimmy Morales ere ari dira ikertzen CICIGeko kideak. Batzordeak haren alderdia legez kontra finantzatu izana frogatzen zuten behar adina azterna aurreratu eta bi egun geroago, Moralesek pertsona non gratatzat jo zuen Iván Velásquez komisarioa. 2017ko abuztuan, Zigorgabetasunaren Kontrako Nazioarteko Batzordeak Mo-

ralesen kontrako epaiketa eskatu zion Kongresuari (hura epaitu ahal izateko), baina Kongresuak galarazi egin zuen. Horren aurretik, CICIGek Jimmy Moralesen anaia eta haren seme bat salatu zituen zerga-iruzur batean parte hartzeagatik.

Estatu-kolpea kamera geldoan

2018ko abuztuan, Moralesek behar baino lehenago eman zion amaiera CICIGen lanari. Erabaki hori publiko egiteko, Armadako 50 ofizialekin baino gehiagorekin batera egin zuen prentsaurrekoa, batzuek “estatu-autokolpetzat” hartu zuten ekitaldi batean. 2019ko urtarrilaren 7an, Guatemalako Palmondo Hazleen Gremioak (GREPALMA) honako jakinarazpen hau argitaratu zuen: “Lege nagusia eta Guatemalako Estatuaren subiranotasuna errespetatuz eta betez, egokituz jotzen dugu Guatemalako Gobernuaren erabakia, zeinaren bidez amaitutzat ematen baita Guatemalako Zigorgabetasunaren Kontrako Nazioarteko Batzordea (CICIG) sortzeko akordioa”⁶⁷. Urtarrilaren 9an, CICIGen kontratua alde bakarretik desgiteko erabakia balio gabetu zuen Gorte Konstituzionalak.

Erabaki judizial horri erantzunez, Moralesek 24 orduko epea eman zion CICIGi herrialdetik ihes egin

zean⁶⁸. Guatemala krisialdi politikoan murgilduta dago “kamera geldoan gertatzen den estatu-kolpe”⁶⁹ horren eraginez. CICIG herrialdetik kanporatu izana da, zalantzarik gabe, horren giltzarria, Nazio Batuek babestutako erakundea; hala eta guztiz ere, kontrako intzidentzia-kanpaina indartsuaren xedea izan da, Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako enpresek lagunduta. Horien artean dugu Naturaceites, Polochic haranean kokatuta dagoen palmondo afrikarraren enpresa boteretsuenetako bat⁷⁰. CICIG batzordeak aurre egin nahi izan dion esplotazioaren, diskriminazioaren eta indarkeriaren status quo hori mantentzea da helburu nagusia. Herrialdetik indarrez kanporatu izanak are atzerapen eta arrisku handiagoak iragarri ditu, horiek defendatzen dituzten pertsonen eta erakundeen artean batez ere.

64 2015eko abuztuaren 21ean, Guatemalako Zigorgabetasunaren Kontrako Nazioarteko Batzordeak eta Ministerio Publikoak Roxana Baldetti presidenteorde ohi harrapatzeko agindua eman zuten. Era berean, Otto Pérez presidentearen kontrako epaiketa aurrekoaren eskaera egin zuen, funtzionarioak modu pasiboan erosteagatik, legez kontra elkartzeagatik eta aduanan iruzur egiteagatik. Horrela, Otto Pérez Molina eta Roxana Baldetti gobernatzailerak hautatu zirenerako horiek “La Línea” izeneko aduanako iruzur-sarean nahastuta zeudela frogatu zen. Hark espetxeratu jarraitzen du delitu horien eraginez.

65 Guatemala exige renuncia de presidente Pérez Molina, Prensa Libre, 2015eko abuztuaren 27a. Hemen: <https://www.prensalibre.com/guatemala/politica/sectores-se-unen-para-exigir-renuncia-de-otto-perez>

66 Oharra: REPSA enpresa HAME taldeari dagokio, Olmeca barne hartzen duen taldea. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu honako esteka hau: <https://www.cicig.org/comunicados-2018-c/com-009-caso-trafficantes-de-influencias/>

67 Prensa Libre: CC sesiona y conoce nueve amparos contra el gobierno de Jimmy Morales, 2019ko urtarrilaren 8a. Hemen: <https://www.prensalibre.com/guatemala/justicia/suman-seis-acciones-en-contra-del-presidente-por-la-cicig>

68 *Guatavisión*: Jimmy Morales utiliza drama de familias para justificar expulsión de la Cicig, 2019ko urtarrilaren 10a. Hemen: <https://www.guatavision.com/noticias/nacional/jimmy-morales-utiliza-drama-de-familias-para-justificar-expulsion-de-la-cicig-bitkov-zimmeri-vielmann/>

69 BBC NEWS: “Un golpe de estado en cámara lenta”: la crisis que vive Guatemala tras la expulsión de la Cicig por el presidente Jimmy Morales. 2019ko urtarrilaren 9a. Hemen: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-america-latina-46805758>

70 Jody García eta Martín Rodríguez Pelleces: *Todos cometimos delitos, pero la CICIG no fue pareja*, Nómada, 2018ko urriaren 27a. Hemen: <https://nomada.gt/pais/entender-la-politica/todos-cometimos-delitos-pero-la-cicig-no-fue-pareja-y-politico-todo/>

III. Lurra eta herri indigenak

Guatemalako biztanle indigenentzat —gehiengoak dira herrialdean⁷¹— lurra da biziaren oinarria. Horientzat, euren tradizioaren barnean sartzen da lurraren jabetza kolektiboa, eta Biziera Onaren aldeko apustua egiten dute garapen-eredu gisa. Eredu horrek naturarekiko, lurrarekiko eta komunitatearekiko harreman harmonikoa proposatzen du. Berdintasuna, justizia eta arbasoen jakintzari balioa ematea du helburu. Pertsonen eta herrien autonomia bilatzen du, horien identitateei, gorputzei, sexualitateei eta lurraldeei dagokienez, eta naturan eta kosmosean bizi diren izaki guztien osagarritasuna sustatzen du.

Nuevo B'aqtun Bateratzetik dioten moduan, honako hau da Biziera Ona: "bizi-proiektu politiko bat, kolektiboaren gogobetetze- eta ongizate-prozesu horretan, ama naturarekin eta kosmosarekin orekatuta egongo den bizimodu bat sustatzeko eta armonia lortzeko". Proiektu horrek mendebaldeko antropozentrismoa gainditzea du xede, eta deskolonizazioa, "despatriarkalizazioa" eta herri indigenek jasaten dituzten zapalkuntzekiko emantzipazioa modu aktiboan gauzatzeko deia egiten du. Proposamen politiko horrek garapen-eredu hegemonikoa kritikatzeko du⁷², eta huraxe salatzen du Guatemalako eta Latinoamerikako defendatzaileen kontrako indarkeriaren arrazoi moduan.

Mundu-ikuskeran indigenaren barruan, gizon-emakumeak lurra zaintzen, ereiten eta hartaz gozatzeko duten bidaiariak izango lirateke, muinoko eta haraneko Tzuultaq'a jainkoaren baimenarekin. Ikuspegi horrek bete-betean talka egiten du Guatemalako indigenek jasan behar izan duten gabetze historikoarekin. Espainiako konkistatzaileek euren arbasoen lurretatik kanporatu zituzten eta, gero, baita Estatuak berak ere. Estatuak jabetza pribatutzat hartzen du lurra, gizartearen eta Estatuaren oi-

narria balitz bezala, eta, gaur egun, behartsuenen artean behartsuenak dira Guatemalako jatorrizko herriak. Estatu honek defendatzen duen erauzketa-ereduak horien habitata suntsitu eta arrisku larrian jartzen du horien bizimodua. Nola liteke Guatemalako biztanleriaren %40a osatzen duten jatorrizko komunitate horiek bizitzeko lekurik edo jatekorik ez izatea? Zer gertatu da lur guztiaren erdia baino gehiago euren burua zuritzat jotzen duten eliteen eta atzerriko enpresen eskuetan egoteko?.



GUATEMALAKO LURRAREN EGOERA⁷³:

Guatemala Latinoamerikako lau herrialde aldakorrenetakoa da lurraren banaketari dagokionez (0,63 puntu ditu Giniren koefizienteetan). Izan ere, lur-jabeen %1,83k dituzte landu daitezkeen lur guztien %56,59. Lur-jabe guztien %23,6 indigenak dira, %7 baino ez emakumeak.

3.700 hektareatik gorako 47 onibar daude, eta ekoizleen %90 hektarearekin bizi dira batez beste. Etxe indigenek are lursail gutxiago dituzte; batez beste 0,25 etxadi dituzte laguneko; eta, ladinoek, berriz, 1,5.

Biztanleriaren erdiak baino gehiagok (6 milioi eta erdi inguru lagunek) 2 dolar baino gutxiago irabazten dituzte eguneko. Bestalde, guatemalarren %0,003k bereganatu dute herrialdeko banku-gordailu guztiaren %50.

Finantza-sistemak mikrokredituetara bideratutako kredituaren ehunekoa %2,34koa baino ez da.

71 Guatemalak 14,5 milioi biztanle baino gehiago dituela balioesten da. Iturriek desberdintasun handiak islatzen dituzte biztanleria indigenaren ehunekoari dagokionez. NBEK positibotzat jotzen du, 2018ko eroldarako, lehen aldiz herri bakoitzeko autoidentifikazio-irizpidea eta beste kultura- eta identitate-elementu batzuk erabili daitezela, horrela errazagoa izango baita biztanleria indigenaren inguruko balioespen ofizialak argitzea.

72 Mendebaldeko Maia Herrien Kontseilua (CPO). Proyecto político: *Un nuevo Estado para Guatemala, Democracia Plurinacional y Go-*

biernos autónomos de los pueblos indígenas. Waqib´Kej Koordinazio eta Konbergentzia Nazional Maiak Iximulew herri indigenen eskaera eta proposamen politikoak argitaratu zituen 2015ean. *Caminando hacia un proyecto político para la reconstitución del Buen Vivir y la fundación de un estado plurinacional.*

73 UNDP: Informes de Desarrollo Humano (2002 eta 2005); CONGCOOP: *Balance de la aplicación de la política agraria del Banco Mundial en Guatemala 1996-2005*; CONGCOOP: *La tenencia de la tierra y la conflictividad agraria en Guatemala*, 2008.

Espoliazio historikoa

Guatemalan, beste herrialde askotan bezala, Estatuaren eskuetan dago nekazaritza-arloko legeria, hau da, lurak nola eskuratu, saldu, erabili edo galtzen diren arautzen duen legeria. Guatemalako oligarkiek hertsiki kontrolatu dute botere legegilea eta, beraz, legeek horien interesak defendatu dituzte garai historiko guztietan. Botere politikoan eta legerian bertan egin diren aldaketek are gehiago sendotu dute goi-botere hori, estamentu militarrek lagunduta. Horrela, eraiki den sistema politiko, sozial eta ekonomikoak menpean hartu ditu gehienek nekazariak eta indigenak, horiei eskubide oro kenduz. Hamarkada iraultzailea (1944-1954) izan zen salbuespen bakarra.

Inbasio koloniala, XIX. mendeko erreforma liberala, barne-gatazka armatua eta globalizazio neoliberala dira proiektu oligarkiko horren lau mugari historikoak, komunitate indigenak miseriara eta indarkeriara eramane dituztenak. Une horiek guztiz itoarazi ditu komunitateen asmoak, berriz ere espoliazioa eta esplotazio arrazistaren kota berriak eraginez.

Indiarren herriak edo indiarren erredukzioak sortzean gertatu ziren lehen gabetzeak, Espainiako Koroak 1542an emandako legeen bitartez sortu zirenak. Indigenak konkistat-

zaileen boterepean ez geratzea eta Koroaren boterepean uztea zen helburua, "horiek kontserbatzeko, modu arrazional eta sistematikoan esplotatzeko, eta horien konkista espirituala osatzeko"⁷⁴. 1601ean, Errege Zedula batek indiarren herriak sortzea agindu zuen etxaldeetatik gertu, baserrietan sakabanatuta bizi ziren herritarrek bildu eta, horrela, zergak errazago kobratu eta horiei gatibu-lanak egitera behartzeko. Horiek izan ziren komunitate indigenen familia osoentzat sortu ziren lehen "kartzelak"; izan ere, familia horiek euren lurak, euren milpak (artoa edo beste hazi batzuk ereiten diren lurak), euren etxeak eta euren bizimoduak utzi behar izan zituzten. 300 urtez funtzionatu zuten, 1814. urtera arte, teoriarik, Koroak indargabetu egin zituen arte. Baina, historialari batzuen arabera, indigenek 1841. urtera arte ihes egin behar izan zuten euren lurretatik⁷⁵.

XIX. mendearen azken herenean gertatu zen bigarren kolonizazioa, alemanen, belgikarren eta ingelesaren aldetik. 1871ko Erreforma Liberalak kolonizazioaren ondorengo gabetzei amaiera eman zien, jabetza komunalari ahalik eta gehien murrizteko⁷⁶. Orduan, Estatuak "lugarritzat" jo zituen komunitateek arbasoengandik jasotako lursail ugari, eta horiek enkante publikoan jarri edo emakidan eman zizkien atzerriko enpresei, hala nola Erdialdeko Amerikako Trenbide Konpainiari.

Hark 1.500 caballeriako (nekazaritzako neurria) lursail bat jaso zuen eta, horrez gain, egur preziatuen basoak eta iturburuak ustiatzeko, zerga guztietatik salbuesteko eta trenbide-lanetarako eskulana erabiltzeko eskubidea izan zuen, polizia bere zerbitzura erabili (ordena publikoa mantentzeko) eta bere segurtasun-langileei polizia moduan jarduteko baimena emateaz gain⁷⁷.

Horrela, atzerriko enpresen eskuetan geratu ziren hasiera batean Nazioaren izenean inskribatuta zuden milaka lugorri. Legeak honela definitzen zituen lugorri horiek: "(...) bizitza primitiboa, askea eta independentea, zibilizazio modernoaren eraginik gabekoa, bizi duten familia indigenak bizi diren lurak"⁷⁸.

Boterearekiko eta ustelkeriarekiko lotura estuek ere pisu handia izan zuten emakida horietan. Lugarriak jaso zituzten lur-jabe askok goi-kargu politikoak edo militarrek betetzen zituzten, eta Guatemalako Estatuaren aldetik emakidak jaso zituzten atzerriko enpresetako ordezkariak postuekin txandakatzen zituzten kargu horiek.

Printzipioz, emakida horiek 99 urteko iraupena izan behar zuten eta, epe hori igarotzean, nazioak lursailaren jabetza berreskuratuko zuten. Baina, Estatuaren eta enpresa emakidadunen arteko kontratuak amaitzean, azken horiek geratu

74 *La Patria del Criollo*, in Laura Hurtado Paz y Paz: *La histórica disputa de las tierras...*

75 Hurtado Paz y Paz, Laura: *La histórica disputa de las tierras...* Aip. lib., 9. orria eta hurrengoak.

76 Alta Verapaz eta Izabal departamentuetako Lurren Sekzioko nagusi politikoek jakinarazi zuten, 1895ean 85 eta 50 espediente izapidetu zituzten, hurrenez hurren. Lugarrien esleipenaz gain, jabetza komunalari amaiera emateko aurrerapen guztiak jasotzen ziren horien txostenetan, jabetza pribatuaren mesedetan. "Gobernuak aurrera eramane zuten jabetza komunalari amaiera eman ahal izateko bere asmoa, haren banaketa handiagoa eta bidezkoagoa lortzeko. Prozesu horretan, hainbat akordio sinatu ziren, garrantzitsuen artean, lur komunalari buruzkoak" (Laura, 20. orria).

77 1884ko Gobernu Akordioaren bitartez, Estatuak 1.500 caballeriako hedapena eman zion 83. finkari, eta hura emakidan eman zion Guatemalako Trenbide Zentralaren Konpainiari. Lurrekin batera, Estatuak egur preziatuen basoak ustiatzeko baimena eman zion, trenbideak eraikitze lanetan, horien erabilera eta aprobetxamendua egin ahal izateko. Era berean, iturburu eta ur-iturri guztiak erabiltzeko aukera eman eta zerga guztietatik salbuetsi zuten. Gainera, Estatuak lan horiek egiteko langileak eman zizkion eta Polizia jarri zuen bere eskura, ordena publikoa mantentzeko. Hori gutxi balitz, enpresako langileek polizia moduan jarduteko baimena eman zion. Emakida horrek 99 urteko iraupena izango zuen eta, epe hori igarotzean, nazioak berreskuratuko egingo zuten lursailaren gaineko jabetza. Ikus Laura Hurtado.

78 Hurtado Paz y Paz, Laura: *La histórica disputa de las tierras...* Aip. lib. 1. Nabarmenduta dagoena gurea da.



El Esfuerzo Tunico komunitatearen eta Tunico ibaiaren inguruko landaren bista, Murcielago Lursailetik.

ziren herri indigenen lurrekin. Estatuak ez zizkien lurra eskatu eta, gainera, are onura eta pribilegio gehiago eman zizkien. Horrela, United Fruit Company (UFCO)⁷⁹ enpresak Erdialdeko Amerikako trenbide guztien monopolioa izatea eta milaka lursail bereganatzea lortu zuen.

Alferkeriaren Legearen bitartez, Jorge Ubico jeneralaren antzeko diktadoreek (1931-1943) indigenen

bortxazko lanak erabili zituzten lur-jabeen finketan, baita obra publikoetan ere, Bidezaintza Legearen bitartez. Diktadoreak lehentasunezko zat jo zuen bide publikoak eraikitzea (esportazioa errazteko) eta, berriz ere, indigenek sorbalda ganean hartu behar izan zuten eraikuntzaren pisu guztia, bidezaintzako zergak ordaintzeko bitartekorik ez zuten, bide horien eraikuntzan lan egitera behartu baitzituzten.

Hamarkada iraultzailean (1944-1954) zenbait neurri hartu ziren, hala nola nekazaritza-erloto erreforma. Haren ondorioz, onibar batzuk desjabetu ziren, aurrez kantitate jakin bat ordaindu ondoren. Horien artean, UFCO⁸⁰ enpresaren lursailak zeuden, herrialdeko lur-jaberik handiena, hark erabili gabe mantentzen baitzituen bere lur guztien %85⁸¹. Erreforma horiek milioi erdi bat nekazariri baino gehiagori mesede egin zieten. Era berean, gatibulana deuseztatu ziren eta langileen %60 sindikatu egin ziren⁸². UFCOren eta CIAren arteko loturak ondo ezagunak dira⁸³, eta Arévalok eta Arbenzek abiarazitako erreforma demokratikoek Estatu Batuen kontinenteko lehen estatu-kolpea eragin zuten. Estatu Batuen esku-hartzeak zenbait ondorio izan zituen: 36 urte iraun zituen gerra hartan, herri indigenak izan ziren, berriz ere, biktimak nagusiak; 600 sarraskitan baino gehiago hil zituzten, eta are espoliazio, sexu-indarkeria eta gatibu-lan gehiago jasan behar izan zituzten eredu-herrixketan⁸⁴.

Gatazka armatuan, komunitate batzuek euren lurra legeztatu nahi izan zituzten horien etengabeko erabilera eginez, baina gogor zigortu zituzten. Sepur Zarco herrixkan,

79 Hogeita hamabost urtetan, 83. finka konpainia beraren eskutan mantendu zen oso-osorik, baina izenez aldatu eta nortasun juridiko desberdinak izan zituen. Gero, herrialdean jarduten zuten (Ipar Amerikako eta Alemaniako kapitalarekin) beste trenbide-enpresa batzuekin bat egin zuen eta, XX. mendearen hasieran, beste enpresa batzuekin fusionatu eta International Railways of Central América (IRCA) monopolio iparramerikarra sortu zuten. Azken hori Erdialdeko Amerikako trenbide guztien jabe bihurtu zen, eta United Fruit Company (UFCO) enpresarenak ziren haren akzio gehienak. Laura Hurtado.

80 Oharra: 1952ko 900. Dekretuan jasotzen den nekazaritza-erloto erreformak indargabetu egin zituen mirabetza eta esklabotasuna. Horrez gain, erabilerarik gabeko 80 hektareatik gorako lurra desjabetu zituen, ordain gisa, lur-jabeari Gobernuaren bonu batzuk emanaz. Dekretua aplikagarri egon zen 18 hilabeteetan, erreformak milioi erdi bat guatemalarrari baino gehiagori (biztanleria osoaren %10) mesede egin zien, eta langileen %60 sindikatu egin ziren. Dekretua on line ikus daiteke: <http://old.congreso.gob.gt/archivos/decretos/1952/gtdcx900.pdf>. Ikus: CEH, 1. kapituluak, 290. epigrafea eta hurrengoak.

81 Oharra: United Fruit Company enpresak 224.000 hektarea zituen, esportazio-zergak ordaintzetik salbuetsita zegoen, herrialdeko eko-

nomiaren %10a kontrolatzen zuen, eta telegrafia- eta trenbide-sistemaren eskubide eskusiboak eta portuen monopolio osoa zituen. 156.000 hektarea desjabetu zitzaizkion, hau da, azalera osoaren %64. Arbenz jaunak haren zerga-aitorpenetan oinarritutako ordaina eskaini zion konpainiari (1,2 milioi dolar), baina konpainiak 16 milioi eskatu zituen. Arbenzek uko egin zion eskaerari, eta horrek CIAren inbasioa eragin zuen. Ikus: CEH, 1. kapituluak, 290. epigrafea eta hurrengoak.

82 Dekretua on line ikus daiteke: <http://old.congreso.gob.gt/archivos/decretos/1952/gtdcx900.pdf>. Ikus: CEH, 1. kapituluak, 290. epigrafea eta hurrengoak.

83 John Foster Dulles estatu-idazkari estatubatuarrek akzioak zituen United Fruit Company enpresan, eta haren anaiak, Allan Dullesek, CIA zuzentzen zuen; gainera, akzioak zituen United enpresan. Operazio horretan nahastuta egon ziren, halaber, John Peurifoy enbaxadorea, Howard Hunt (gero Watergate kasuan kondenatu zuten), United Fruit Company enpresako kontseilari Thomas Corcovan eta Idígoras Fuentes jenerala (Guatemalako presidentea 1958. urtean). Ikus: Ortega López, José: La estrategia de USA en Centroamérica, Alba argitaletxea, Madril, 1987.

84 Eredu-herrixka horiek kontzentrazio-esparruak ziren eta, horietan, armadak gizon-emakume indigenak doktrinatzeko zituen, bere politika antikomunistaren azken fasean.

adibidez, armadak hil egin zituen lurrrak euren izenean inskribatu nahi zituzten gizonak, eta gero sexua-ren esklabo bihurtu zituzten horien emazteak⁸⁵. Indarkeriagatik ihes egin zuten beste komunitate batzuek finka bihurtuta aurkitu zituzten euren lurrrak: “1982. urtea baino lehen, hemen ez zegoen finkarik, komunitatea baizik. Ez zegoen palmondorik, artoa baizik. Baina, gero, armada iritsi eta dena eraman zuen berekin; mendian babestu behar izan genuen. Itzuli ginenerako, finka jarrita zegoen”⁸⁶. Jabe berriak, eskuzabaltasunez, bertan lan egiteko aukera eman zien, huskeria baten truke. Kaleratzeak jasan dituzte euren lan-eskubideak erreklamatzegatik, eta euren lurretatik indarrez kanporatu dituzte, euren lurrrak berreskuratzen saiatzeagatik.

Daniel Pascual (Nekazarien Batasuneko Batzordearen koordinatzaile nagusia) defendatzaile indigenaren arabera, Merkataritza Askearen Itunek piztu zuten espoliazioaren laugarren une historikoa (Oscar Berger presidente zela sinatu ziren Erdialdeko Amerikarekin, 2005. urtean). Itunak berretsi ondoren, Guatemala-lako lurrrak enpresa handien eskuetan geratu ziren berriz ere, 20 eta 30 urterako emakiden bitartez. Orduan, “epe luzeko beste gerra baten” aurrean zeudela konturatu ziren komunitateak. Meatzaritzako ustiapenen edo ustiapen hidroelektrikoen emakidetan bezala, lur-esleipenek Guatemala kontrolatzen duten botere-egiturei atxikitako

pertsonei eta enpresei laguntzen zieten.

Laburbilduz, herri indigenek, herrialdean gehiengoa izan arren, ez dute inoiz berdintasunez parte hartu herrialdeko bizitza politikoan, sozialean, kulturean eta ekonomikoan⁸⁷. Herri indigenek jasaten duten segregazioa eta egiturazko arrazismoa argi eta garbi islatzen dira Estatuaren aldetik bizi duten babesgabetasunean, euren lurrei, lurraldeei eta baliabide naturalei dagokienez. Gainera, zailtasun handiak jartzen dizkiete politikan parte hartzeko, Kongresuko

kide izateko —bertan prestatzen dira zuzenean eragiten dizkieten legeak— eta, euren eskubideak urratzen direnean, justiziara jo ahal izateko. Eskubide horien babesgabetasuna nagusi den testuinguru horretan, “berdintasunik eza sekulakoa da lurren banaketari dagokionez eta lurren jabetzatik eratorritako segurtasun-gabeziari dagokionez. Erregistro-sistema ez da egokia, eta arbasoen jatorrizko lurrrak beste batzuen izenean erregistratu daitezke. Gainera, ez dago mekanismo egokirik jabetzarekin lotutako gatazkak ebazteko, eta horiek epaiketetan bukatzen dute”⁸⁸.

“Bataila-eremua berriz ere gerra sozialarena zela ikusi zuen Nekazarien Batasuneko Batzordeak (CUC), panazea gisa, erauzketa-proiektuak sustatuz (...). Batetik, lurra, enplegua, hezkuntza eta garapena bilatzen duten herri indigenak daude, inori kontsultatu gabe iritsi eta euren eredia ezartzen duten enpresen kontra. Enpresa horiek Estatuaren eta poliziaren babesa aurkitzen dute, eta errepresio kasik zigorgabea gauzatzen dute. Gizarte-ehuna apurtzera etortzen dira; biztanleriaren zati bat konbentzitzen dute eta, horrela, komunitateak apurtzen hasten dira. Gainera, ustelkeria- eta zigorgabetasun-katea sortzen da: ez da ingurumen-azterketarik agertzen, udalerriek inori kontsultatu gabe onartzen dituzte emakidak eta, pixkanaka, natura bera suntsitzen da”⁸⁹.

CUC nekazarien borrokarako erakunde historikoa da. 1972an jaio zen eta gatazka armatuan izugarri zigortu zuten. CUC osatzen duten komunitate indigena eta nekazarietako ordezkarien arabera, “eus-tea, borroka egitea eta aurrerapausoak ematea” da geratzen zaien bide bakarra. “Gure aitona-amonen irakasbideak berreskuratzea behar ditugu gure lurraldea eta gure lurrrak defendatzeko, baita gure mundu-ikuskeria eta eskubideak ere”.

85 Kasuaren adibide paradigmaticoen artean, Las Tinajas destakamentu militarreko (Sepur Zerco herrixkatik gertu, Izabal departamentuan) lur-jabeen eskaera dugu. Ere mu hartan ez zegoen armadarik, baina petrolio- eta meatze-interes sendoak zituzten. 1982tik 1986ra, soldaduen olgetarako eta atsedenerako gune bihurtu zuten basea. Soldadu horiek kektxi emakumeak bortxatu eta sexua-ren esklabo bihurtu zituzten, hau da, euren lurren titulazioa eskatu zuten eta torturatu eta hil egin zituzten gizonen emazteak. Emakumeak ere desagertu eta erail zituzten, amak zein alabak. Gainera, bortxaketek horien sustraiak suntsi zitzaizketen lehen gaueko eskubidean: “finken jabeek emakume indigenak bortxatu eta lehen gaueko eskubidea gauzatzen zuten horiekin, eta hori aho batez onartzen zuen komunitate osoak”.

86 El Esfuerzo Único komunitateko buru Martinen testigantza, 2018ko urria.

87 Nazio Batuen Batzar Nagusia: *Errelatore Bereziak Guatemalara egindako bisitaren ondorengo herri indigenen eskubideei buruzko txostena*, A/HRC/39/17/Add.3, 2018ko abuztuaren 10a, 3. orria. Hemen: <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G18/246/46/PDF/G1824646.pdf?OpenElement>

88 Nazio Batuen Batzar Nagusia: *Errelatore Bereziak Guatemalara egindako bisitaren ondorengo herri indigenen eskubideei buruzko txostena*, Aip. lib. 6.

89 Daniel Pascuali egindako banakako elkarrizketa, 2018ko urria, Guatemala-lako Hiria.

Agroindustriaren botere arriskutsua

Lurrak berriz biltzeko nekazaritza-dinamika berriek⁹⁰ are arrisku handiagoan jarri dituzte defendatzaileak, hau da, euren komunitateek eta herriek lurrari eta baliabide naturalei dagokienez dituzten eskubideak defendatzen dituztenak. Global Witness erakundearen "A qué precio" txostenaren arabera, agroindustria da, mundu osoan, defendatzaileen erasoekin eta hilketekin loturarik handiena duen sektorea⁹¹. Guatemalan, enpresa-proiektu horiek bananondo eta palmondo afrikarraren lursail landatuak ustiatzen dituzte batik bat. Enpresa horien jabeek gero eta lur-eremu handiagoak nahi dituzte laborantza intentsiboa egiteko eta, horretarako, behin eta berriz irtenarazi dituzte komunitateak euren lurretatik, komunitate indigenak itoaraziz eta herrialdeko gatazka sozialak larriagotuz.

Enpresek legez kontrako azpijokoak erabiltzen dituzte hori legeztatzeko; besteak beste, katastro-erregistroak eta mugak aldatzen dituzte eta, jakina, iruzurrera eta ustelkeriara jotzen dute. Oinordetzako traktuarekin lotutako argitasunik eza eta lursailen ondoz ondoko salmenta (jabe bati baino gehiagori) direla-eta, ezin da segurtasunez jakin zein den lursail jakin baten legezko jabea, eta are gutxiago legezko jabe hori legitimoa ote den⁹². Euren lurren aldeko eten-



Arto lursailen haziera momentu ezberdinetan eta bestelako landare eta laboreak.

gabeko borroka horretan, komunitateek eta defendatzaileek ez dute onibar horietan enpresa hidroelektrikoak eta meatzaritzako zein petrologintzako enpresak finkatzerik edo nekazaritzako eta ehungintzako makilak jartzerik nahi.

Herrialdeak bizi dituen gatazka-mailak oso kezagarriak dira. Presidentearen Giza Eskubideen Batzordeak (COPREDEH) 230 gatazka sozial erregistratu zituen 2016ko 8 hilabetetan, horietatik erdiak baino gehiago lurrarekin lotuak: nekazaritzako gatazkak (%34) eta baliabide naturalen eskaerak (%18)⁹³. Nekazaritzako Idazkaritzak

nekazaritza-arloko 1.448 gatazka erregistratu zituen 2018an, milioi bat laguni baino gehiagori eragin zietenak. Gatazka horiek guztiak gainjartzeekin, lurralde-mugekin, erregularizazioekin eta lurren okupazioekin zeuden lotuta⁹⁴. Gatazka horien guztien jatorrian, elikaduraren segurtasun-arazo larria dugu: nekazaritzako elikagaien enpresak aberasten ari dira esportatzeko gero eta palmondo eta bananondo gehiago erein ahala, baina, aldi berean, nekazari guatemalarrak gero eta lur gutxiago dituzte euren labore tradizionalak ereiteko eta, beraz, jateko gero eta elikagai gutxiago dituzte.

90 Oharra: FAOren arabera, Guatemalak ez du zentzu zorrotzean biltzen lurrak biltzeko edo *Land Grabbing* prozesua. Izan ere, 1.000 hektareatik edo herrialde bakoitzak erabakitzen duen zifratik gorako lurren salerosketarako erabiltzen da kontzeptua. Gainera, gobernua ere parte hartu behar du salerosketa horretan, erosleak atzerritarra izan behar du eta lurrak oinarritzko elikagaiak ekoizteko bitartekoa izan behar du. Ikus Soto Baquero, Fernando eta Sergio Gómez: Reflexiones sobre la concentración y extranjerización... FAO, Aip. lib. 255.

91 Front Line Defenders erakundearen arabera, lurraren defendatzaileak ziren 2017an erailldako giza eskubideen defendatzaile guztien %67. Global Witness erakundeak gaiari buruz egindako azken txostenak ("A qué precio") salatzen duenez, urte horretan lurraren 207 defendatzaile hil zituzten mundu osoan, inoiz baino gehiago, horiek erregistratzen hasi zenetik. Brasilen (57), Filipinetan (48) eta Kolonbian (24) erregistratu ziren hilketa gehien. Gainera, lurraren

defendatzaileen aurkako 7 sarraski gertatu ziren Brasilen (3), Filipinetan, Mexikon, Perun eta Kongoko Errepublikan Demokratikoan.

92 Nazio Batuen Goi Komisarioak Guatemalan duen Giza Eskubideetarako Bulegoa: *Los desalojos en el Valle del Polochic, Una mirada a la problemática agraria y a la defensa de los derechos humanos de las comunidades q'eqchi'*, Guatemala, 2013.

93 Giza eskubideen prokuradorea: *Informe Anual Circunstanciado 2016* (Jorge Eduardo de León Duque), UDEFEGUA, 2017ko txostena, Aip. lib., 42.

94 Nazio Batuen Goi Komisarioak Guatemalan duen Giza Eskubideetarako Bulegoa. *Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioak Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko txostena* (2016).

2017ko martxoan, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) foroa antolatu zuen, Guatemalan, Guatemalako soroen garapena sustatzeko, baliabide naturalen erabilera arduratsua eta bidezkoa eginez. Elkarrizketa-proposamenak bazuen testuingururik, "Lurren edukitza, arrantza eta basoen gobernantza arduratsua egiteko borondatezko jarraibideak, elikadura-segurtasun nazionalaren esparruan"⁹⁵. Jarraibide horiek 2012an sinatu ziren, Erroman, mundu osoko 193 gobernuren aldetik⁹⁶.

Guatemalak ere sinatu zituen, eta haren gaur egungo nekazaritza-politika jarraibide horietan dago inpiratuta, baina horien ezarpena ez da, inola ere, gobernu sinatzaileen lehenentasuna izan. Hala eta guztiz ere, arazoa gero eta larriagoa da.

Latinoamerikako eta Karibeko Lurren gaian aditua den FAOko Sergio Gómezek honako hau esan zuen foro horretan: "Guatemala gatazka larria bizitzen ari da lurraren gobernantzari dagokionez, munduko handienetako bat. Mendez mende garatu den arazoa da, baina oraindik ez dute hura gainditzea lortu"⁹⁷. 2018ko uztailan, FAOk berak gaiari buruzko beste mintegi bat antolatu zuen Guatemalako Hirian. Nekazaritzaren gaia agenda publikoan mantentzeko eta sustatzeko eta guatemalaren elikadura- eta nutrizio-segurtasunean laguntzeko esparruak irekitzea zen foroaren helburua⁹⁸.

Maien eta xinken komunitate indigenek gidaliburu bat hedatu dute euren lurralde komunitarioak erregistratzeko eta, horrela, nekazaritza-industriako enpresek eta megaproiektu energetikoez horiek ez kentzeko⁹⁹. Gaur egun, FAOk nekazaritza-arloko politika ezartzeko laguntza teknikoa eskaintzen dio gobernuari, hark herri zaurgarriengan eta herritarren elikadura-segurtasunean eragin positiboa izan dezan. Printzipioz, Guatemalako legeriak berak bermatu egiten du komunitateek euren lurrikiko duten eskubidea, eta komunitateei azken horiekin lotutako gai guztiak kontsultatu beharra jasotzen du.

Halere, printzipio horiek nekez ezartzen dira, eta lurraren edukitzarekin zein erabilerarekin lotutako araudia sistematikoki urratzen da interes ekonomiko handien mesedetan, komunitateen eskubideak zanpatuz eta, halabeharrez, horiei gosea, miseria eta gatazka eraginez.

Komunitate indigenek lurralde-gatazketan dituzten eskubideak

Komunitate indigenek aldaketa larriak ikusi dituzte megaproiektuak jartzeko aukeratutako lurraldeetan: izan ere, lurraldea ez da eremu fisikoa bakarrik, "pertsonek arteko eta pertsonen eta naturaren arteko harreman sozialen, kulturalen eta sinbolikoen multzoa baizik"¹⁰⁰. Zent-

zu horretan, gatazka "eko-territorial" moduan izendatzeak argi eta garbi islatzen du "ekosistemak eta lurraldeak sare sozialak, kulturalak eta espiritualak direla, eta bizitza gizatiarraren eta ez-gizatiarraren ekoizpenerako behar-beharrezkoak direla"¹⁰¹. 2005. urtean Marlin Meategiaren instalazioari uko egin zioten komunitateek, adibidez, "euren bizitza komunitarioaren polarizazioa eta zatiketa jasan dute, bizilagunak aurrez aurre jarri eta kriminalizazioa, jazarpena eta beste mehatxu mota batzuk erabiliz"¹⁰². Errealitate hori herrialdeko gatazka eko-territorial gehienetara estrapolatu daiteke.

Bestalde, gabetzeen kapitalismoarekin lotutako espoliozio-prozesu hori ez da fenomeno berri bat eta, zorritarrez, ez da lurraldearen espolioziora mugatzen. Beste gabetze tradizional bat "ezagutzarena eta jakintzarena"¹⁰³ izan da, eta horrek bereziki eragin die emakumeei, indigenei nahiz nekazariei. Izan ere, arbasoengandik jasotako jakintzak eta ezagutzak ezinbestekoak izan dira bizitzak eta kulturak aurrera jarraitzeko, naturaren zaintzarako eta elikadura-subiranotasunerako, baina patriarkatuak gutxietsi egin ditu, eta horien lurrak eta eguneroko bizitzak desegituratzen dituen sistemaren ezarpenak berak ere proban jarri ditu. Ur-iturri erabilgarriak murrizten direnean, adibidez, emakumeek —familia zaintzen dutenek— distantzia luzeagoak egin behar dituzte funtsezko ondasun horren

95 *Directrices voluntarias para la gobernanza responsable de la tenencia de la tierra, la pesca y los bosques en el contexto de la seguridad alimentaria nacional*, Erroma, 2012. Hemen: <http://www.fao.org/3/a-i2801s.pdf>

96 Global Witness, II. Eranskina, 54. orria eta hurrengoak.

97 Nekazaritza-arloko elkarrizketarako eta Guatemalaren garapenean laguntzeko FAOren foroa. <http://www.fao.org/guatemala/noticias/detail-events/en/c/854049/>

98 Lurrak edukitzearen gobernantzari eta Guatemalarako ekoi-zpen-ikuspuntuei buruzko mintegia, 2018ko abuztuaren 1a, Guatemalako Hiria. <http://www.fao.org/guatemala/noticias/detail-events/en/c/1147539/>

99 *Manual para su Reconocimiento e Inscripción en el Registro Municipal: Comunidades Indígenas del Pueblo Maya y Xinca*, UDEFEGUA, 2017ko txostena, Aip. lib. 38.

100 Hoetmer 2013, in Rocío Silva Santisteban, Aip. lib. 28.

101 Silva Santisteban, Rocío, Aip. lib. 171.

102 Osasun Auzitegiak Goldcorp-en kontra zeuden meatzaritzak eragindako komunitateen kasuan emandako epaia. 2012ko uztailaren 14a eta 15a, San Miguel Ixtahuacán, San Marcos. Nelton Rivera eta Quimy de León: El pueblo de Sipakapa ya dijo no a la minería canadiense Goldcorp, 2013.

103 Vega Cantor (2013), in Rocío Silva Santisteban: *Mujeres y conflictos...* Aip. lib. 26.



El Esfuerzo Tunicoko errepide nagusia.

bila. Ahalegin horiei muturreko ga-beziez betetako bizitza gehitu behar zaie, diskriminazio bikoitzekoa, emakume eta indigena izateagatik.

Megaproiektuen garapenak guztiz urratzen ditu komunitate indigenen oinarrizko eskubideak. Jarraian, eskubide horiek azalduko ditugu, baita horiek nola urratzen diren ere.

LURRA ETA BIZIERA ONA IZATEKO ESKUBIDEA

Guatemalako Errepublikaren Konstituzio Politikoak jabetza pribatua izateko eskubidea aitortzen du, baina, era berean, herri indigenek euren lurak, "historikoki dagozkienak", modu berezian kudeatu ahal izango dituztela jasotzen du. Kons-

tituzioaren arabera, Estatuak nahitaez babestu behar ditu horiek, "programa berezien eta lege egokien bitartez", eta "horiek garatzeko behar dituzten" lurak eskaini behar dizkie. Horrez gain, desjabetzeko aukera onartzen du, lurrari aipamen berezia eginez eta diru kantitate jakin baten truke (merkatuko balioaren arabera zehaztua), betiere, erabilera publikoko, onura sozialeko edo interes publikoko arrazoiak egiaztatu ondoren¹⁰⁴.

Konstituzioan hala jasota geratu arren, ez da modu eraginkorren babesten herri indigenen jabetza kolektiboa, eta errealitate horrek emakumeei eragiten die batik bat, kredituen titulartasunari eta horiek

eskuratzeko ahalmenari dagokionez¹⁰⁵. Bake Akordioek barne hartzen dituzten konpromisoen artean, FONTIERRAS lurren funtsa sortu zen lurak banatzeko prozesu gisa, nekazaritza-erreformarekin lotutako narrazioen bidez, baina ez ditu aurreikusitako emaitzak izan¹⁰⁶. Errealitatean, lur-jabeen laurden bat baino gutxiago dira indigenak, eta batez beste 0,25 etxadi dituzte laguneko¹⁰⁷. Landa Garapen Integraren Sistema Nazionaleko Legea geldirik dago Kongresuan, eztabaidatzeko itxura handiegirik gabe.

FAOren azterketa batek ondorioztatu duenez, gaur egun Guatemalan "ez dira baldintza egokiak betetzen lurren merkatu eraginkorra garatu ahal izateko. Askotan, salerosketa-prozesuan sartzen diren lurak kolonizazioaren onuradunenak dira eta, beraz, distortsio handiak daude prezioetan"¹⁰⁸. Nazio Batuen arabera, babesgabetasunak eta auzo-lurren jabetzarekin lotutako zatiketak areagotu egiten ditu komuneroen eta enpresen artean negoziatzen diren banako salerosketa-akordioak (erauzketarako eta garapenerako megaproiektuak jartzen direnean), eta horrek izugarri eragiten die lurren osotasunari eta erabaki kolektiboak hartzeko aukerari¹⁰⁹.

2017an, jurisprudentziaren esparruko aurrerapauso garrantzitsuak eman ziren jabetza kolektiboaren aintzatespenari dagokionez, baita arbasoen lurak leheneratzeko prozesuarekin lotuta ere, lur kolektiboan erregistro anomaloen ondorioz, horiek udalerrien edo partikularren eskuetan geratu zirenean. Kasu horien artean ditugu

104 Oharra: Auzo-lurak eta beste edukitza mota batzuk onartzen dituen prozedura zehatzik ez dagoenez, horiek jabetza pribatu partikularren modu berean erregistratzen dira. Ohiturazko zuzenbide indigenak ez du aintzatespen formalik, eta ez da ahalegin handiegirik egin zuzenbide indigena eta Estatuko zuzenbidea elkarrekin koordinatzeko. Guatemalako Errepublikaren Konstituzio Politikoaren 66, 67 eta 68. artikulua.

105 SEGEPLAN: Agenda 2030 para el desarrollo sostenible, 74. orria.

106 Palencia Prado, Tania: *Cero punto Cero...* Aip. lib., 128. orria eta hurrengoak.

107 Etxadi batek 0,7 hektarea ditu. Batez beste, lurren tituluak dituzten indigena guatemalarrak 42 bider 40 metroko lursailak dituzte.

108 Soto Baquero, Fernando eta Sergio Gómez: *Dinámicas del mercado de la tierra...* Aip. lib. 254.

109 NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, Aip. lib. 12.

txorti komunitatearen (Jocotán)¹¹⁰, xinka komunitatearen (San Francisco Jumaytepeque) eta kektxi komunitatearen (San Pablo Chinaja)¹¹¹ jabetza pribatuak, adibidez¹¹². Nazio Batuen hitzetan, Konstituzionaltasun Gorteak “bere jurisprudentzia sendotzen jarraitu zuen jurisdikzio indigenaren aintzatespenari dagokionez”. Horrela, bada, agintari indigena baten erabakia onartu zuen epai bidez, Nebaj herriko emakume indigena baten jabetza kolektiborako eskubideak aitortu zituzten¹¹³.

Sepur Zarcoren kasuan, auzitegiak zenbait erreparazio-neurri agindu zituen sexu-esklabotasunaren biktimia izan ziren emakumeentzat, horien artean, kektxi komunitateko emakumeek lurra eskuratu ahal izatea. Oso neurri garrantzitsua izan zen, lehen esan dugun moduan, horiek sexu-indarkeriaren biktimia izan baitziren barne-gatazka armatuan, euren senarrek lurra horien izenean erregistratu nahi zituztelako, hain zuzen ere¹¹⁴. Horiek betetzen diren ala ez ikusi beharko da.

ALDEZ AURREKO KONTSULTA-ESKUBIDEA (LANEREN 169. HITZARMENA)

Komunitate indigenek euren kontsulta-eskubidea aitortu dadila eskatzen dute, komunitateek kalte larriak jasaten baitituzte euren arbasoen lurraldeetan eta euren baliabide naturaletan proiektuek jartzen direnean. Baina agintariak ez dute bermatzen herri indigenei kontsulta egiteko obligazioa horien aldean



El Esfuerzo Tunicoko biztanleak gosaltzen.

rretiko baimen librea eta informaturatu lortu ahal izateko.

Guatemalako Herri Indigenei eta Tribalei buruzko LANEREN 169. Hitzarmena sinatu zuen, alde aurretiko kontsulta aske eta informatuaren eskubidea jasotzen duena. 2017an, Lan Ministerioak “Herri indigenei kontsulta egiteko gutxieneko arauen gidaliburua” onartu zuen, baina ez zituen kontuan izan nazioarteko estandarrak. Nazio Batuen arabera, kontsularen inguruko eztabaidak formalitate prozesal hutsaltzat edo gatazkak konpontzeko mekanismotzat hartzen dira —hala ez izan arren—, eragindako herri indigenen giza eskubideak ba-

besten direla eta horiek egiaz parte hartzen dutela bermatu gabe. Nazioarteko estandarren arabera, agintariak kontsulta bermatu behar dute proiektuaren lehen faseetan, ingurumen- eta gizarte-inpaktuaren ebaluazioetan¹¹⁵.

2004tik 2014ra, Guatemalan 113 kontsulta komunitario egin ziren herrialdeko 12 departamentutako 74 herrialdeetan, lidergo indigena komunitarioak sustatuta. Gehienek ez dute euren lurraldeetan enpresarik jartzerik nahi, baina ez zituzten euren eskaerak kontuan izan. Dena den, kontsulak gizarte-mugimendu komunitarioa piztu dute, eta autodeterminazioaren eta autogo-

110 Oharra: Txorti komunitatearen kasuan, jabetza-erregistroan gaitzki eginda zegoen erregistroa, udalerraren alde. Hark partikular bati alokatu zizkion lurra 50 urtetan, eta enpresa hidroelektriko bat eraiki da bertan. Ikus NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, 2017, X. orria.

111 NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, 12. orria. Bertan, Arlo Zibileko eta Merkataritzako Apelazioen Gorteko bigarren eta hirugarren salen epaiak aipatzen dira, arbasoen lurra leheneratzen dituztenak.

112 Kasu garrantzitsuen artean, honako hauek ditugu: Chichicastenango herri indigena (Quiché), Chuarranchoko komunitate indigena (Guatemala), Sierra de Santa Cruz, El Estor eta Livingstoneko

(Izabal) zortzi kektxi komunitateak, Camotán txorti komunitateak (Chiquimula), San José Poaquil Kofradia (Chimaltenango), Comitancilloko mam komunitatea (San Marcos) Nebaj udalerriko ixil komunitatea (Quiché). Ikus errelatore bereziak herri indigenei buruz egindako 2018ko txostena, Aip. lib. 6.

113 943-2017 espedientea, NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, 9. orria.

114 A/HRC/34737Add. 1, 7. paragrafoa.

115 NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, 13. orria.

bernuaren eskubidea aldarrikatzen dute¹¹⁶. 2008an, San Marcos departamentuko hogeita hamar milioi erdi bat lagunek baino gehiagok euren erabakia berretsi zuten eta, hala, uko egin zioten Exploradora de Guatemala enpresak (GOLD-CORP kanadarraren enpresa filiala) euren lurraldeetan meatzaritza-jarduerak aurreratzeko asmoari¹¹⁷.

Herri indigenei buruzko Nazio Batuen errelatore berezi Victoria Tauli-Corpuzek honako hau adierazi zuen bere txostenean, 2018ko irailan herrialdera bisita egin ostean: “zenbait eparen arrazoiketara behar bezala txertatzen dira nazioarteko estandarrek, baina ez epaia emandako neurrietan, eta hutsuneak hautematen dira konbentzionalismoko eta arrazoizkotasunezko kontrolak ezartzean”¹¹⁸.

2016ko apirilean, Justizia Gorte Gorenak hainbat komunitatek aurkeztutako babes eskeko errekursoaren aldeko epaia eman zuen, eta post facto kontsulta egiteko agindua eman zion Energia eta Meategien Ministerioari, betiere, eragiketarako geldiarazi gabe, hau da, nazioarteko estandarrekin bat etorri gabe. Justizia Gorte Gorenak geldiarazi egin zituen bi epai, bi proiektu hidroelektrikok bere horretan jarrai zezatela ahalbidetzen zutenak, kaltetutako herri indigenek uko egin arren¹¹⁹. San Rafael meategiaren kasuan —kapital kanadarra eta estatubatuarra dituen meategia—, Gorte berberak

jarduerak geldiarazi zitezela eskatu zuen 2018ko irailan, Energia eta Meategien Ministerioako agintariak xinka herriari kontsulta egin arte. 2012an, xinken %98,2k uko egin zioten meatzaritza-proiektuari.

Justizia Gorte Goreneko 13 magistratuak erabakia hartu behar dute El Estor (Izabal) udalerriko 65 kektxi indigenak aurkeztutako babes eskeko errekursoari dagokionez. Izan ere, Compañía Guatemalteca de Níquel (GCN) enpresaren jarduera geldiaraztea eskatzen dute, ez baitzitaien kontsultarik egin 60ko hamarkadatik euren lurraldea suntsitzen ari den megaproiektuaren inguruan.

INFORMAZIO-ESKUBIDEA

Erauzketa-enpresa gehienek eta agroindustriak XIX. mendeko ustiapen-lizentzia jaso izan balute bezala jokatzeko dute: euren negozioak zabaltzen dituzte “lugorritzat” jotzen dituzten lurretan; pribilegio fiskal garrantzitsuak dituzte; ia esklabotasun-erregimenean enplegatzen dituzte nekazariak; eta poliziaren babesa jasotzen dute —euren segurtasun pribatuaz gain, azken horiek arbasoengandik jasotako lurraldeetan jarri den finka bat babesten dute—.

Estatuak ustiapen-lizentziak eman ahal izateko, Ingurumen Inpaktuaren Azterketak (IIA) aurkeztu behar dira. Horiek irizpide teknikoetan oinarrituz onartzen dira, kulturari egokitzen zaizkiola egiaztatu ondo-

ren, hala, giza eskubideak errespetatzen eta babesten direla bermatzeko. Nolanahi ere, erakundeek ez dute gaitasun teknikorik IIA horiek berrikusteko, ezta horiek ikuskatzeko behar adina aurrekontu ere. Gainera, Estatuak ez ditu doako ikasketak eskaintzen (oso luzeak dira) eta, isilean, informazio-eskubideari uko egiten dio¹²⁰. Ingurumen Inpaktuaren Azterketak lortzen dituztenean, komunitateak, baliabiderik gabe eta, askotan, hizkuntza bera ezagutu gabe, ito egiten dira termino ezezagunez beteta dauden milaka folioetan, eta defendatzeko gaitasunik gabe geratzen dira.

2018ko martxoan, Informazioaren Eskurapenari, Partaidetza Publikoari eta Justiziaren Lorpenari buruzko Eskualde Akordioa onartu zen Latinoamerikako eta Karibeko Ingurumen Gaietan¹²¹. Latinoamerikako 16 herrialdek sinatu zuten akordioa, eta juridikoki lotesleada. Haren bidez, herritarrei eragiten dieten erabakietan parte hartzeko aukera eman diezaietela eskatzen zaie gobernuari, ingurumen-arloko erabakietan, hain zuzen ere. Gainera, defendatzaileak babesteko eta informaziora eta justiziara sarbide hobea izateko hainbat konpromiso jasotzen ditu. Guatemalako 2018ko irailaren 27an sinatu zuen, baina, momentuz, Guatemalako Kongresuak ez du berronetsi; gainera, ez du legerik eman hura herrialdeko araudi-ara egokitzeko.

116 Santos, Boaventura de Sousa: *Reinventar la democracia, reinventar el Estado*, 2005, CLACSO.

117 *Diario de Centroamérica*, Guatemalako Estatuko egunkari ofiziala, 2008ko maiatzaren 20a, 4. orria.

118 Nazio Batuen Batzar Nagusia: *Errelatore bereziak Guatemalara egindako bisitaren ondorengo herri indigenen eskubideei buruzko txostena*, Aip. lib. 6.

119 Santa María Cahabón (Alta Verapaz) udalerriko bi proiektu hidroelektrikori buruzko epaiak. Izan ere, proiektuak bertako biztanleei kontsulta egin gabe baimendu ziren, eta epaiak proiektuak bere horretan jarraitzea ahalbidetu zuen, eragindako komunitateek kontsulta komunitarioan horiei uko egin arren.

120 Oharra: Ingurumen Inpaktuaren Azterketek 2.000 eta 3.000 orri artean izaten dituzte, eta Administrazioak 20 eguneko epean berrikusi behar izaten ditu. Gainera, erauzketa-industriaren proiektuek izan dezaketen inpaktu soziokulturala ebaluatu behar du, baita ingurumen-inpaktuak arintzeko planak ere. Epe horretan, Estatuak informazioaren doako sarbide publikoa bermatu behar du. Gainera, Administrazioak txosten horien kopiak ordaindu ditezela eskatzen du.

121 CEPAL: 2018ko martxoan, Informazioaren Eskurapenari, Partaidetza Publikoari eta Justiziaren Lorpenari buruzko Eskualde Akordioa onartu zen Latinoamerikako eta Karibeko Ingurumen Gaietan. Hemen: <https://www.cepal.org/es/acuerdodeescazu>



Josefina Mocu Chub (eskuinean) El Esfuerzo Tunicoko sukaldea zuzentzen.

INDARKERIARIK GABE BIZITZEKO ESKUBIDEA

Azken urteetan Guatemalan eraildako defendatzaile gehienek lurra, lurraldea eta baliabide naturalak defendatzen zituzten. Gainera, komunitate osoak irtenarazi dituzte euren lurretatik, hau da, bizi diren eta landatzen dituzten lurretatik¹²².

2011ko martxoko hiru egunetan, Ch'abil Utzaj findegiaren enpresariak eta finka-ustiatzaileak 12 kektxi komunitate kanporatu zituzten Polochic Haranetik, 800 familia baino gehiago. Polizia Nazional Zibileko eta Armadako kideek hiru nekazari erail, beste bat atxilotu eta hainbat kalte larri eragin zituzten hiru egun horietan. Enpresak zorrak zituen Integrazio Ekonomikorako Erdialdeko Amerikako Bankuarekin (BCIE) eta, horregatik, Guatemalako Banku Industrialak enkante publikoan atera zituen Polochic Haraneko onibarrak. GKE-ek proposamena egin zioten une hartako BCIEko zuzendariari: Estatuak enpresaren zorra bereganatu zezala, "Estatuaren zor publi-

koa" balitz bezala. Otto Pérez Molinaren gobernuak aukera historikoa izan zuen herri indigenen arbasoen lurra berreskuratzeko eta horietan garapen-plana ezartzeko, gosete eta desnutrizio gehien jasaten ari diren eskualde horietako batean. Halere, enpresariak eta finka-ustiatzaileak zorra negoziatu zuten BCIErekin, eta horien kontrako demanda bertan behera uztea lortu zuten; hala, segurtasun-indarrek agindu bakar batekin irtenarazi zituzten komunitateak euren lurretatik, finkaren mugak zehatz-mehatz finkatu gabe.

2016ko urrian, Polochic Haraneko beste komunitate batzuk irtenarazi zituzten euren lurretatik, indar handiz gainera: helikopteroak, 1.800 polizia eta enpresaren beste horrenbeste segurtasun-langile erabili zituzten, baita enpresako langileak ere. Komunitateek euren etxeak eta laboreak nola erretzen ziren eta euren animaliak nola hiltzen zituzten ikusi behar izan zuten, eta erasoak eta jazarpenak jaso zituzten gainera. Bortxatuta eta babesik gabe sentitu ziren. Ezinezkoa gerra-garaiko

indarkeria ez gogoratzea. Halere, euren lurra hartu dituzte berriz ere, baina beldur dira, horietatik irtenaraziko dituztelakoan. "Lur hau gurea zen; gero, finka-ustiatzailea etorri eta kendu egin zigun. Lurra gure gurasoena zen. Gurea zen. Horregatik gaude hemen. Eta gure etxetxoak eraiki genuen. Oso txiroa da, baina hemen bizi gara. Lurra gurea zelako eta guri dagokigulako"¹²³. Lurretatik irtenarazteko aginduek gaur arte iraun dute, gero azalduko dugun moduan.

ELIKADURA-ESKUBIDEA

FAOk Latinoamerikako lurra pilatzeko eta atzerritarren esku uzteko prozesuari buruz egindako azterketa batek¹²⁴ argi eta garbi ikusarazten du mundu osoan bizi den lur-pilaketan arazoak arriskuan jartzen duela, herritarren elikadura-segurtasuna ez ezik, mundu osoko elikadura-sistema ere¹²⁵. Guatemala ez da salbuespena. Polochic Haranean, bi enpresek bereganatu dute lur gehiena: SER Korporazioaren Chabil Utzaj findegiak eta Naturaceites enpresaren palmondo-olioaren findegiak. 2011n Polochic Haraneko 12 kektxi komunitateetako 800 familia irtenarazi zituzten euren lurretatik, eta 10 neska-mutiletatik 6k desnutrizio kronikoa jasaten dute gaur egun¹²⁶.

Desnutrizioa nazio-mailako arazoa da; izan ere, 5 urtetik beherako umeen ia erdiek (%46,5)¹²⁷ jasaten dute desnutrizio kronikoa. Ehuneko are handiagoa da ume indigenen artean, 5 urtetik beherako ume indigenen %61,2k jasaten baitute desnutrizio kronikoa, horietatik erdiak baino gehiago neska¹²⁸.

122 Oharra: Ikus "Indarraren gehiegizko erabilera" atala.

123 Martín, El Esfuerzo Túnico komunitateko agintari tradizionala. 2018ko urrian egindako banakako elkarrizketa.

124 Soto Baquero, Fernando eta Sergio Gómez: *Dinámicas del mercado de la tierra en América Latina y Caribe: concentración y extranjerización*, FAO, 2012.

125 *Berdina*.

126 Oxfam: *Situación de seguridad alimentaria y nutricional en las familias desalojadas en el Valle del Polochic*, 2015.

127 SEGEPLAN: *Agenda 2030 para el desarrollo sostenible: Examen nacional voluntario*, 2017, Guatemala, 66. eta 92. orriak.

128 SEGEPLAN: *Agenda 2030 para el desarrollo sostenible: Examen nacional voluntario*, 2017, Guatemala, 66. orria.

2017an, 5 urtetik beherako 111 ume hil ziren desnutrizioaren eraginez¹²⁹. Familiek ez dute jateko edo euren lursail txikiak lantzeko behar adina irabazten eta, hala bada, bizirauteko baino ez. Herri maien ia %80k bizitzeko behar dena baino gutxiago dute¹³⁰.

Beste arazo larri bat uzta txarrena da, baita herbizida bidezko fumigazioek (glifosatoak, adibidez) sortutako gaixotasunen igoera ere. Glifosatoa kanabera-zurtoinak modu baxuagoan eta zabalagoan hazteko erabiltzen da, hala, azukre-kontzentrazio handiagoak izateko, baina Monsanto fabrikatutako kimiko ezagun horrek ondorio suntsizailerak eragiten ditu beste landare batzuetara iristen denean. 2013an, Reutaluhe departamentuko hirurogei komunitatek baino gehiagok salatu zituzten fumigazioak, komunitateen osasunean eta uzten beherakada drastikoan ondorioak eragiteagatik. Gainera, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) "ustezko kartzinogenotzat" hartu du herbizida.

URA IZATEKO ESKUBIDEA

Guatemalak ez du urari buruzko legerik eta, beraz, sektore bakar batek ere ez du ur-kontsumoaren kontu ematen. Horrela, inolako zigorrak gabe espoliatzen da baliabide natural hori, eta bizitzeko funtsezkoa den eskubide horretaz gabetzen dituzte komunitateak. 2010ean honako hauek izan ziren ur-eskaerarik handienak egin zituzten sektoreak:

nekazaritza-sektoreak (%59,4), kafearen sektoreak (%18) eta elektrizitatearen, gasaren eta uraren sektoreak (%15,4). Bestalde, megaproiektuek ur-kopuru handiak behar izaten dituzte askotan eta, eragiten dituzten ingurumen-kalte larrien artean, ibaiak eta iturriak kutsatzen dituzte. Enpresa hidroelektriko handiek ibaien ibilguak aldatzen dituzte, eta urik gabe uzten dituzte komunitate osoak.

Herrietako ur-putzuen kutsapenari eta lehorketari dagokienez, Marlin Meategiaren (San Miguel Ixtahuacán, San Marcos) kasu paradigmaticoa dugu¹³¹.

INGURUMEN-ESKUBIDEA

Herraldean ez dago legezko mekanismorik ingurumen-kalteak saihesteko, ikuskatzeko eta konpontzeko, ezta megaproiektuen instalaziotik eratorritako giza eskubideen abusuen kasuan ere. Kutsaduragatik zigorrak ez dute botere hertsatzailerik. Zigorgabetasunak areagotu egiten ditu kalteak, askotan, konponezinak.

Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordeak bere iritzia eman du Estatuaren ingurumen-arloko obligazioei dagokienez. Betebehar horiek biziaren babesarekin eta pertsonen osotasunarekin daude lotuta, baita ingurumen-kalteak saihesteko eta konpontzeko egitekoekin ere. 2017an, honako irizpen hau eman zuten: "ingurumen osasuntsua funt-

sezko eskubidea da gizatasunaren existentziarako"¹³². Batzordeak ingurumen-kalte esanguratsuei aurrera hartu beharra azpimarratzen du, eta herritarrek informazioa jaso eta zeresana izan behar dute jarduerara edo erabaki jakin batek ingurumena kalte dezakeenean. Epai hori ingurumena babesteko erabili daiteke Guatemalan.

Arestian aipatu dugun Polochic Haranean, Fénix meatzaritza-proiektua kokatuta dago 60ko hamarkadatik. Izabal lakuan lan egiten duten arrantzaleek behin eta berriz salatu dute nikel-meategiaren ustiapenak (gaur egun Ursa Solway enpresaren eskuetan) lakua kutsatzen eta komunitateen bizibidea larriki kaltetzen jarraitzen duela¹³³. Gero azalduko dugun moduan, arrantzaleek indarkeria eta hautazko atxiloketak jasan behar izan dituzte.

La Pasión ibaiaren kutsadurak (Repasa palmondo-enpresaren aldetik) izan du oihartzun mediatikorik handiena, baina palmondo-enpresa batzuen aurkako salaketak —ingurumen- eta lan-arloko arazoak direla eta— ez du etenik izan 2012tik. Honako hau esan zuen Alta Verapaz departamentuko ordezkari komunitario batek: "ura ezinbestekoa da guretzat, ez baitugu hodiko urik. Erauzketa-fabrikek 2013. urtetik kaltetzen dituzte Limón, Jute eta San Román ibaiak. Leku horietan guztietan, arraiak hiltzen eta euliak ugaritzen ari dira"¹³⁴.

129 Elikadura eta Nutrizio Segurutasunaren Idazkaritzak emandako datuak. Oharra: Mavelita Interiano Amador (txorti neska bat) desnutrizioaren eraginez hil zen Camotán herrian (Chiquimula), Konstituzionaltasun Gorteak haren aldeko babes-neurriak eman arren. Horrek argi eta garbi islatzen du Estatuak ez dituela neurri egokiak hartzen herritarrek arazo larri horren aurrean babesteko. Ikus NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jarduerari buruzko 2017ko txostena, Aip. lib. 21.

130 Oharra: 15 urtetik beherako adingabeen %69,2 pobrezian bizi dira eta familien erdiek baino gehiagok ez dute oinarrizko elikagaien saskia erosteko behar adina diru. Herri maien bizitza are gorreragoa da, %79,2 pobrezian bizi baitira. Ikus NBGEGK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jarduerari buruzko 2017ko txostena, Aip. lib. 21.

131 Palencia Prado, Tania: *Cero punto Cero...* Aip. lib., 131.

132 Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren OC-23/17 Kontsulta Iritzia, 2017ko azaroaren 15ekoa, Kolonbiako Errepublikak eskatua. Hemen: http://www.corteidh.or.cr/docs/opiniones/seriea_23_esp.pdf

133 Jody García, Nómada, 2018ko azaroaren 27a. Resumen de 5 puntos: El desastre ocasionado por el níquel en Izabal. El Estor herrian dagoen enpresak Guatemalako Estatuaren laguntza jaso du 60ko hamarkadatik. Lau hamarkada hauetan behin eta berriz errepikatu dira patrioiak: gobernuak abantailak eskaini dizkie enpresei eta erreproisio gauzatzen du euren eragiketarako fiskalizatzen dituztenen kontra. Hemen: <https://nomada.gt/identidades/guatemala-rural/resumen-de-5-puntos-el-desastre-ocasionado-por-el-niquel-en-izabal/>

134 Rodrigo Veliz: *Denuncias, demandas y un estado sordo*, Plaza Pública, 2015eko uztailaren 22a. Hemen: <https://www.plazapublica.com.gt/content/denuncias-demandas-y-un-estado-sordo>



Alfonso Cucul harro bere etxearen aurrean.

IV. Ahots deserosoak

Funtsezko eskubideen urraketa horiei aurre egiten dieten, lurra defendatzen duten, justizia eskatzen duten edo Guatemalako botere-egituren bidegabekeriak eta ustelkeria argitara ateratzen dituzten pertsonak arrisku larrian bizi dira. Azken urteetan modu kezagarrian areagotu dira defendatzaileen eta kazetari independenteen kontrako erasoak. Herrialdea osoak jasaten du indarkeria. Izan ere, 22 departamentutatik 19tan erregistratu dira erasoak, horietatik %80 Guatemala, Huehuetenango, Alta Verapaz, Chiquimula eta Jutiapa departamentuetan, defendatzaileentzat lekurik arriskutsuenak.

Eraso gehienak Estatuko botere faktikoez gauzatzen edo pizten dituzte, gobernagarritasunerako eta atzerri-tarren inbertsiorako mehatxu gisa ikusten baitituzte eskaera sozialak, kanpainak eta manifestazioak. Diskurtso ofizialek —ugaritu egiten dituzte komunikabide handiek— gatazken kategoriara murrizten dituzte prozesu sozial konplexuak, erauzketa-eredu ekonomikoen ezarpen historikoarekin areagotu egin direnak. Bitartean, indarkeriak eta lurren espoliozioak areagotu egin dituzte herrialdeko gehiengoek jasaten dituzten diskriminazioa, arrazismoa eta zapalketa.

NBGEKKBk egindako azken txostenaren arabera, 2018an giza eskubideen 26 defendatzaile hil zituzten Guatemalan¹³⁵. Gizarte zibileko erakundeek 20 hilketa horiek salatu zituzten auzitegi publikoan, Amerikarteko Batzordearen aurrean, honako hitz hauek erabiliz: “Giza eskubideen urraketa larriekin eta lider sozial eta nekazarien desagerekin lotutako salaketak Guatemalan”¹³⁶. Zifra horrek bikoiztu egiten du 1017an gauzatutako hilketen kopurua, orduan, giza eskubideen 10 defendatzailei kendu baitzitzaizen bizia; horri Hogar Seguro Virgen de la Asunción zentroko tragedian hildako 41 neska gehitu behar zaizkio (UDEFEQUAk defendatzaileentzat hartzen zituen)¹³⁷.

UDEFEQUAk Justizia Sistemaren funtzionamenduari, Jimmy Moralesen gobernuaren jarduketari, tokiko boterearen erasoari eta garapen-ereduaren jazarpenari egozten die indarkeria igo izana¹³⁸. Emakume defendatzaileek, bereziki, gero eta kriminalizazio handiagoa jasaten dute betetzen duten eginkizunagatik. Difamazioen eta larderen xede dira batik bat, baina jarraipenak, ahozko eta idatzizko mehatxuak eta lapurreta ere jasaten dituzte. 2018an, emakume defendatzaileen kontrako 35 eraso erregistratu zi-

ren, urteko lehen erdian izan ziren 135etatik¹³⁹.

Aurreko zifrek nolabaiteko behar-rakada islatzen dute 2013 eta 2014. urteekin alderatuta, orduan, defendatzaileen kontrako 673 eta 820 eraso erregistratu baitziren, hurrenez hurren. Otto Pérez Molina militar ohia presidente zela (Partido Patriota alderdiko buru moduan) gertatu zen indarkeria-piko kezka-garri hori. Une horretan, 15 aldiz handitu zen 2000. urtean (UDEFEQUAk erregistratutako lehen urtea) izan ziren erasoen kopurua, 52 guztira. 2017an gertatu ziren 493 erasoak¹⁴⁰ —urte horretakoak dira eskura dauden azken zifrak— mende-aldaketan izan zirenak baino ia hamar aldiz handiagoak dira.

Babesgabetasun instituzionalaren aurrean, Amerikarteko Batzordeak eta Nazio Batuen Goi Komisarioak Guatemalan duen Giza Eskubideetarako Bulegoak eskaera egin zioten Guatemalako Estatuari, hark defendatzaileak babesteko politika publikoa hartu eta ezarri zezan, hain zuzen ere¹⁴¹. Giza Eskubideen Batzorde Presidentzialak (COPREDEH) iragarrita zuen dagoeneko politika publiko hori, Amerikarteko Batzordeak 2014an epai loteslea eman eta Europako Parlamentuak eta nazioarteko beste erakunde

135 <http://www.oacnudh.org.gt/images/CONTENIDOS/ARTICULOS/INFORMESANTERIORES/2018.pdf>

136 AEE, 2018ko urriaren 31ko jakinarazpena. Hemen: <http://www.oas.org/es/cidh/prensa/comunicados/2018/230.asp>

137 2017ko martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, 41 neska adingabe hil ziren, kiskalita, 16 metro karratu inguruko gela batean giltzaperatuta zeudela, inolako higiene-zerbitzurik gabe. Gela horri “eskola edo tailerra” deitzen zaio eta Hogar Seguro Virgen de la Asunción zentroaren instalazioetan kokatuta dago. Gelaren barruan 19 gazte hil ziren, eta beste 22 ospitalean, erredura termikoen, sepsi orokorraren (gorputz osoari eragiten dion infekzioa), intoxikazioaren, asfixiaren eta beroaldiaren ondorioz. Polizia Nazional Zibila eta Virgen de la Asunción zentroko agen-

teak gela zaintzen ari baziren ere, ez zuten atea ireki giltzaperatuta zeuden 56 adingabeek sutetik ihes egin zezaten. Ikus, UDEFEQUAren 2017ko txostena, 96. orria eta hurrengoak.

138 UDEFEQUAren 2017ko urteko txostena, 1. orria.

139 2018ko urtarrilean (data horretan itxi zen ikerketa) oraindik ez zegoen urte horretako zifrarik.

140 Oharra: UDEFEQUAren arabera, 2016an erregistratu ziren azken 9 urteetako eraso gutxien (263). 2008an, 208 eraso erregistratu ziren.

141 AEEren jakinarazpena: <http://www.oas.org/es/cidh/prensa/comunicados/2018/230.asp>

batzuek presioa egin ondoren. Nolanahi ere, politika hori garatzeko dago oraindik. Era berean, ez da Babes Nazionalerako Mekanismo-rik sortu, Mexikon eta Hondurasen bezala. Estatuak segurtasun-neurriak eskaintzen ditu Amerikarteko Batzordeak hala eskatzen duenean, defendatzaileentzat nahiz erakundeentzat, baina balen aurkako txalekoak eta bizkartzainak baino ez ditu esleitzen.

COPREDEH Batzordeak “Giza Eskubideen Defendatzaileen aurkako Erasoen Azterketa Instantzia” sortu zuen 2012an, baina ez du haren indarraldia eta eskuduntzak oinarritzeko moduko Ministerio arteko Akordiorik edo berezko finantza-baliabiderik. UDEFEGUAren arabera, “langile sindikatuen, buruzagien, zuzendarien, militanteen, sindikatueta liderren eta lan-eskubideen defentsarekin lotutako pertsonen aldeko berehalako eta prebentziozko segurtasun-neurriak eta horiek euren jarduerak gauzatu ahal izateko leku fisikoak ezartzeko protokoloak” ez ditu aurreikusitako emaitzak lortu. Fiskaltzak badu unitate bat defendatzaileen aurkako erasoak aztertzeko, Claudia Paz y Paz Estatuko fiskal nagusi ohiaren eta UDEFEGUAK ordezkaturako giza eskubideen aldeko erakundearen arteko akordioaren bidez sortua. Nolanahi ere, kolektiboaren kontrako indarkeriak zigorrik gabe jarraitzen du kasu gehienetan.

Bizitzeko eskubidearen kontrako erasoak

Azken urteetan bezala, 2018an erail zituzten defendatzaile gehienak nekazari-elkarteetako kideak ziren, indigenak batez ere, eta euren arbasoen lurrak defendatzeagatik hil

zituzten, nazioko eta nazioarteko enpresei aurre eginez.

Uztailaren 12an, Ángel Estuardo Quevedo hil zuten, Casillas udalerriko buruzagi komunitarioa. Uztailaren 20an, Adolfo Chon Pacay, Nekazarien Batasuneko Batzordeko (CUC) kidea. Uztailaren 28an, Ixil Juana Raymundo defendatzaile maiaren gorputza aurkitu zuten, Nekazarien Garapen Batzordeko (CODECA) koordinazioko kidea. Irailaren 21ean, Juana Ramírez Santiago hil zuten, Ixil Emakumeen Sareko zuzendaritza-batzordeko kidea, eta, urriaren 10ean, Benedicto Hernández eta Arnoldo Hernández aita-semeak, CUCeko kideak (Batzordeak Amerikarteko Batzordearen kaute-lazko neurriak jasotzen ditu).

Nekazarien Garapen Batzordea (CODECA) izan da guztietan zigortuena. Jimmy Morales presidentek berak “erakunde kriminal” gisa deskalifikatu zuen, publikoki, 2018ko maiatzean¹⁴². Hurrengo hilabetean, Batzordeko bost lider hil zituzten:

Luis Arturo Marroquín, Florencio Nájera, Alejandro Hernández, Francisco Murguía eta Juan Xol Can. Uztailaren 28an, Juana Raymundo liderraren gorputza agertu zen, torturatuta. 25 urteko erizain eta ixil etniako defendatzaile maia honek CODECA Batzordearen koordinazioan lan egiten zuen, Nebaj Quiché eskualdean.

Altiplanoko Nekazarien Batzordeak (CCDA) —erreferentziatzeko beste erakunde bat nekazarien eta komunitate indigenen eskubideak eta lurrak defendatzeko orduan— ere hainbat buruzagi galdu zituen, Ramón Choc, José Can Xol eta Mateo Chamamena, hain zuzen ere. Honako hauek ere hil zituzten urte osoan: Ronal David Barillas Díaz, Azukre Kanaberaren Agroindustriak kaltetutako komunitateetako kidea; Elisandro Pérez lurraren defendatzailea, Txori Morola komunitate indigenako kidea; eta Luis Armando Madonado, Quetzaltenango hiriko Lurraren Pastoral Sozialeko kidea.

Nekazarien Garapen Batzordea (CODECA) 1992an fundatu zuten hegoaldeko kostan esplotatutako nekazari taldeek. Ordudanik dihardute borrokan, lurra berriztatze, landa-eremuetan bidezko soldatak eskatzeko eta 1999an pribatizatu zuten zerbitzu elektrikoa berriz nazionalizatzeko, neurri kolektiboaren eta iraunkorren bitartez¹⁴³. Zentzu horretan, Energuate konpainia elektriko pribatizatuaren kontrako kritikak nagusitu ditu, komunitate indigenek eta nekazariak bizi duten lur-banaketarik eza dela eta. Horrek mehatxuak, erasoak eta salaketa faltsuak eragin ditu konpainiaren aldetik, eta hilketak ere gertatu dira konpainiako segurtasun-langileen aldetik.

Altiplanoko Nekazarien Batzordeak (CCDA) ere jasan behar izan ditu erasoak. Batzordea 1982an jaio zen, Guatemalako gatazka armatuaren unerik larrienean. CCDAk 2000. urtean lortu zuen legezko aintzatespena, eta komunitate nekazarien landa-garapena defendatzen du. Gainera, behin baino gehiagotan salatu du finka-ustiatzaileek eta lurdunek beraienzat hartu dituztela komunitate indigenen arbasoen lurrak.

142 Front Line Defenders: Asesinato de Juana Raymundo. Hemen: <https://www.frontlinedefenders.org/es/case/killing-juana-ray-mundo>

143 Front Line Defenders, 2018ko ekaina.

Defendatzaile bakoitzaren heriotza galera konponezina da komunitateentzat eta Guatemalako gizarte osoarentzat. 2017an, honako defendatzaile hauek hil zituzten lurrraren eta baliabide naturalen gaineko eskubidea defendatzeagatik: Francisca Aguilar Carrillo (Huehuetenango), Francisco Xol Beb (Alta Verapaz), Carlos Maaz Coc (Izabal), Antonio Pérez de León (Quiché), Eugenio López López (Quetzaltenango) eta Sebastián Alonzo (Huehuetenango); azken hori bizkarrean tiro eginda hil zuten Ixquisiseko proiektu hidroelektrikoaren aurkako manifestazio baketsuan. Komunitateko beste pertsona batzuek ospitalera eramán zuten bitartean hil zen 72 urteko defendatzailea.

Lurraren defendatzaile horiez gain, 2018an sei kazetari independente hil zituzten gutxienez, gehienak landa-eremukoak. Beste 31k mehatxuak eta erasoak jaso zituzten, Kazetarien Behatokiak azaroaren 30ean argitaratutako txostenaren arabera¹⁴⁴. Behatokiaren azken txostenaren arabera, prentsaren gaur egungo egoera 2016an baino hobea da Guatemalan, urte horretan berrogeita hamar mehatxu eta eraso baino gehiago erregistratu baitziren kazetarien aurka. Dena den, Behatokiak berak salatu du ekintza horiek sektorearen kontrako "estrategia planifikatua" direla, prentsak Jimmy Morales presidentearen hanka-sartzeak jorratu dituelako. Izan ere, ez du Kazetariak Babesteko Programa onartu. Horrez gain, txostenak Erakunde Legegilea kritikatzan du, komunitatzaileei kongresura sarbiderik ez emateagatik¹⁴⁵.



Ade Gonzalez (eskuinean) eta Sofia Duyos Comité de Unidad Campesinako zuzendarien batzorde nazionalako kide den Esteban Hermelindo Cux elkarrizketatzen, Panzosen duen bulegoan.

Defendatzaile kriminalizatuak

Azken urteetan, makina bat defendatzaile guatemalarrak difamazioak eta erasoak jasan behar izan dituzte betetzen dituzten eginkizunengatik, batik bat sare sozialen bitartez. Difamazioak —hori da kriminalizatzeko modurik ohikoena— defendatzaileak kaltetzen ditu bereziki, baita horien familiak eta komunitateak ere. Beste kriminalizatzeko ekintza batzuen artean, ausazko atxilotak eta gauzatu ez diren delituen salaketa judizialak ditugu. Jimmy Moralesen Gobernuak proposatzen dituen aldaketek tipo penalak areagotzea dute helburu; horiek bereizi gabe ezartzen dira defendatzaileen aurka. Aldi berean, gorrotoaren diskurtsoa areagotu da giza eskubideak defendatzen dituztenen aur-

ka. Horrek mota guztietako egoerak piztu ditu eta, neska adingabe baten kasuan, adibidez, fanatiko jainkozale batek hil egin zuen bere hezkuntza-eskubidea defendatzeagatik¹⁴⁶.

Defendatzaileak "komunista", "iraultzaile" eta "barne-etsai" gisa deskalkifikatu zituzte Guatemalako gerran eta, gaur egun, "terrorista", "antisistema" edo "gauza guztien kontrako" pertsonatzat jartzen dituzte oraindik, kontinente osoan zabaldu diren adjektiboak. "Euren buruak buruzagi komunaltzat jotzen dituzten hiltzaile profesionaltzat" ere jo dituzte, baita "giza eskubideen etengabeko urratzaile monopolizatzailetzat" edo "porrot egin duen jendaila fratrizidatzat" ere¹⁴⁷. Horien erakundeak "giza eskubideen bizizale" moduan nabarmendu zituzte, eta horien lana zikindu dute, "gerrillari-terrorista ohien negozio eksklusiboa" dela

144 CERIGUA: *Estado de Situación de la Libertad de Expresión 2018: Intolerancia Oficial*, 2018ko azaroaren 30a. Hemen: https://cerigua.org/media/uploads/libertad_expresion/estado_de_situacion_de_la-libertad_de_expresion_en_guatemala_2018.pdf. Behatokia 2004an sortu zuten Guatemalako Informazio Albisteen Zentroak (CERIGUA), Guatemalako Kazetarien Elkarteak eta Giza Eskubideen Prokuradoretzak.

145 Un informe revela 6 asesinatos y 31 ataques a periodistas

en Guatemala en 2018. Efe, 2018ko azaroaren 30a. Hemen: <https://www.efe.com/efe/america/sociedad/un-informe-revela-6-asesinatos-y-31-ataques-a-periodistas-en-guatemala-2018/20000013-3829584>

146 UDEFEGUAren 2017ko txostena, 3. orria.

147 *Berdina*.

esanez¹⁴⁸. Behin baino gehiagotan, agintariak "narkotrafikatzaile" moduan estigmatizatu dituzte komunitate osoak. Lacandona mendilerroa hustu zutenean, Carlos Menocal herrizaintzako ministroak berak tokiko narkotrafikatzaileak babestu izanaz salatu zuen handik irtenarazitako komunitatea¹⁴⁹.

Lubakiz eta eraisketaz betetako kanpaina horri ordainpeko artikuluen eta atalen argitalpenak gehitu behar zaizkio, horiek etengabe kalumniatzen baitituzte defendatzaileak. Horren adibide paradigmaticoen artean dugu, esaterako, EXMINGUA enpresaren jakinarazpen publikoa. Hura komunikabideen bitartez zuzendu zitzaion Errepublikako presidenteari, eta honela kalifikatu zituen gizarte-erakundeak: "GKE erradikal horiek negozio handia dira (...) Egia esan, herrialde eder honen etsaiak dira. Zuzenbidezko Estatuaren barnean, horien jarduketa negatiboa mugatu egin behar dela uste dugu (...) GKE-ek eta horien ekintza bortitzek asko korapilatzen dute agintaldi konstituzionala bete ahal izatea, Legea alde batera utzita jarduten baitute askotan"¹⁵⁰. Garai bateko komunista iraultzaileak balira bezala, nola edo hala ezabatu beharreko "barne-etsaiak" dira lurra defendatzen duten pertsonak, meatzaritza-enpresen gogo biziaren kontra.

Proiektu hidroelektrikoak eta meatzaritza-proiektuak ezartzerik nahi ez duten defendatzaileek jasaten dituzten erasoen harira, komunitate



Daniel Pascualen kasua (CUC)

Gero eta gehiago, defendatzaile guatemalarraren difamazioek prozesu judizialak abiarazten dituzte, horien erakundeen izena belztu eta betetzen duten lana suntsitzeko. Hori da, hain zuzen ere, Nekazariaren Batasuneko Batzordearekin (CUC) gertatu dena. CUC 1978an hasi zen nekazari eta komunitate guatemalarraren eskubideak defendatzen (Batzordeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Guatemala, la lucha por la Madre Tierra erreportajea).

Urte askotan, CUCeko kideek difamazio eta salaketa faltsuak jasan behar izan dituzte. 2014an, familia baten hilketan parte hartu izana leporatu zioten Batzordeko zuzendariari, Daniel Pascuali, ustez, familiak zementu-enpresa baten legez kontrako instalazioa (Los Pajoques herrian) salatu zuelako. Orduan, Terrorismoaren Kontrako Fundazioak (FCT) honako hauxe argitaratu zuen bere sareetan: "Hilketa gertatu bezain laster jakin genuen nor izan ziren "giza eskubideen defendatzaile" titulu faltsuarekin babesten direnen erantzuleak, Nekazariaren Batasuneko Batzordea (CUC), hain zuzen ere, nazioarteko dohaintzak jasotzen dituen Daniel Pascual gerrillari ohia buru dela"¹⁵¹.

Gero, Fundazio horrek Pascualen kontrako kereila jarri zuen haren irain-, difamazio- eta kalumnia-delituengatik, megaproiektuen instalazioarekin lotuta egin zituen adierazpenengatik eta FCTk CUCen lana suntsitzeko egin zituen ahaleginengatik¹⁵².

Pascual botere militarren eta haren aldekoen mehatxupean dago. Liga Pro Patria elkarteak terrorismoagatik, delitu egiteko mehatxuengatik, hertsapenengatik eta Konstituzioa urratzeagatik salatu du, landa-garapenaren legeei buruzko eztabaiden esparruan.

osoak kriminalizatu dituzte lurrarekiko eskubidea defendatzeagatik¹⁵³. UDEFEGUaren arabera, Justizia Sistemak apropos jarduten du pertsona horiek kriminalizatzeko, espetxeratuta mantentzeko eta, horrela,

gatazken kopurua murrizteko. Jardun horrek larriki kaltetzen ditu defendatzaileen eta komunitateen bizitzak eta, gainera, gizarte-ehuna desegituratu eta justizia-sistema bera galbideratzen du.

148 Antón Turnisov: ¿Qué pretenden los terroristas? II. zatia, 2014ko urriaren 9a. Nullius in Verba bloga. Hemen: <http://www.facebook.com/FundacionContraElTerrorismoGuatemala/posts/291910924333477>. Amnesty International: Defendemos la Tierra con nuestra sangre, Aip. lib. 45.

149 2011n, Menocal herrizaintzako ministroak narkotrafikatzaile taldeen laguntza jaso izanaz salatu zituen Nueva Esperanzako komunitateak. Ikus: <https://www.prensalibre.com/ciudades/peten/entidades-ambientales-peten-continuaran-rescate-0-542945947/>

150 Exploraciones Mineras de Guatemala S.A. (EXMINGUA) enpresaren presidenteari 2016ko apirilaren 6an Prensa Libre egunkarian

ordaindutako atala. Amnesty: Defendemos la Tierra con nuestra sangre, Aip. lib. 49. or.

151 Antón Turnisov: ¿Qué pretenden los terroristas? II. zatia, 2014ko urriaren 9a. Nullius in Verba bloga. Hemen: <http://www.facebook.com/FundacionContraElTerrorismoGuatemala/posts/291910924333477>. Amnesty International: Defendemos la Tierra con nuestra sangre, Aip. lib., 45.

152 Amnesty International: Defendemos la Tierra con nuestra sangre, Aip. lib., 45.

153 UDEFEGUaren 2017ko txostena, 28. orria.

2017an (urte horretan jaso ziren azken datuak), 166 kriminalizatzeko erregistroak ziren arrazoi horien eraginez, defendatzaileen aurkako erasoaren bat, alegia¹⁵⁴. 2018ko ekainera bitartean 76 zeuden erregistroak, denbora-tarte horretan erregistroak eraso erdiak baino gehiago¹⁵⁵. Bederatzi lagun, gutxienez, espetxeratu daude oraindik, horien artean Abelino Chub Caal, Guillermo Toriello Fundazioaren sustatzailea, 2017ko otsailan atxilotua. Usurpazio larriagotzatik, suteagatik, hertsapenagatik eta legez kontra elkartzeagatik salatu zuten; Puerto Barrioseko epaimahaiak eman zuen hura harra-patzeko agindua, El Muerciélago finka hustu ondoren.

Abelino Chub jaunaz gain, espetxeratu daude Bernardo Caal Xol, Eduardo Bin (El Estoreko arrantzaleek egindako erreklamazioen bozeramailea) eta Agustín Timoteo txorti defendatzailea, hura ere Puerto Barriosen auzipetua. Beste atxilotuak agindu batzuek indarrean jarraitzen dute oraindik, horietako batzuk dozenaka lagunak kontra. Kriminalizatu dituzten komunitate asko euren herrizketan daude gordeta, atxilotu egingo dituztelakoan; hori da, esaterako, Nueva Libertad komunitatearen kasua (Cobán, Alta Verapaz)¹⁵⁶. Gaur egun, egoera horretan bizi dira txorti komunitateko 22 agintari (Chiquimula departamentuan); karguak bereizi gabe salatu zituzten, euren komunitateetako buruzagi izateagatik eta giza eskubideak sustatzeagatik.

[LAUKIA



Martin Xi Cuz tokiko buruzagia Murcielago Lursaileko plantazioei begira.

Emakume defendatzaileen kriminalizazioa

Lolita Chávez defendatzaile indigena, Kitxe Herrien Kontseiluko (CPK) liderra, Guatemalako emakume defendatzaileek jasaten duten kriminalizazioaren nazioarteko irudi bihurtu da: bi atentatu eta zenbait bortxaketa-saiakera jasan ditu, eta bere kontrako 24 salaketa ditu epaitegietan.

Beste emakume defendatzaile batzuk ere salatu eta atxilotu dituzte inolako justifikaziorik gabe, horien artean, María Choc. Azken hori 2018ko urtarrilean atxilotu zuten, Puerto Barrioseko epaitegietatik irtetean (itzultzaile lan egiten zuen bertan). Usurpazio larriagotzatik, mehatxuengatik eta legez kontrako atxikienagatik salatu zuten Rodrigo Lainfiesta diputatu ohiak, Pérez Molina presidente ohiaren lagun minak, eta bere jabetzako onibar baten okupazioa antolatzeaz salatu zuten, Livingstonen. Salaketaren arabera, Mariak bahitu egin zuten —ez du ezagutu ere egiten, eta ez zen izan Livingstonen—, eta armategia du, gainera. Mariaren abokatuek zigortu egin dezaketela uste dute, amarruak babesle boteretsuak baititu.

María eta haren ahizpa, Angélica Choc, lurraren eta baliabide naturalen defendatzaileak biak, familia borrokalari batetik datoz. Bien biloba, Héctor Manuel Choc Cuz, inolako arrazoirik gabe torturatu eta hil zuten 2018ko urtarrilean. Anaia, Ramiro Choc —hura ere lurraren aldeko borroka buru—, sei urte eta erdi egon zen espetxeratu, lapurreta-salaketa batengatik. Lehen preso politikoa izan zen gatazka armatuaren ondoren. Oraindik ere erruztatuta jarraitzen du, inoiz egin ez zituen krimenengatik.

154 Oharra: UDEFEGUAren arabera, 2017an 493 eraso gertatu ziren gutzira, horietatik 166 kriminalizatzeko erregistroak (%33,67).

155 Oharra: 2017an, UDEFEGUAK 166 kriminalizatzeko erregistroak zituen, defendatzaileen aurkako eraso guztien %33,67. Dena

den, 2018ko denbora-tarte horretan, eraso guztien (135) erdiak baino gehiago (%56,29) izan ziren.

156 NBEko Goi Komisarioaren Bulegoko Maia Campbelli egindako elkarrizketa, 2018ko urria.

Bernardo Caal, Cahabón herriko (Alta Verapaz) Erresistentzia Baketsuko burua

2018ko azaroan, Bernardo Caal Xol lider indigena guatemalarrak zazpi urte eta lau hilabeteko espetxeratze-zigorra jaso zuen "legez kontrako atxilotagatik eta zulagailu bat, erreminta-kaxa bat eta zuntz optikoa lapurtzeagatik". Zigorra Oxec enpresako kideen testigantzetan oinarritu zen, Santa María Cahabón udalerrian presa hidroelektrikoa eraikitzen ari zen enpresa.

NBEko adituek "neurrigabetzat" jo dute epaia, eta Caal Xolek udalerriko kektxi komunitateen ordezkari moduan bereganatu zuen eginkizunarekin lotzen dute epaia, baita Oxec enpresaren kontra abiarazi zituen legezko ekintzekin ere, proiektu energetikoa geldiarazteko borroka egiteagatik, hain zuzen ere. Gaineratu dutenez, "proiektua eragindako komunitateei kontsultatu gabe abiarazi zen, horien baimenik gabe, eta ondorio larriak eragin ditu ingurumenean, baliabide naturaletan, ura eskuragarri izateko eskubidean eta kektxi komunitateen osasunean"¹⁵⁷.

2017ko urtarrilean, Guatemalako Auzitegi Gorenak bertan behera utzi zuen proiektua eta, urte bereko maiatzean, Auzitegi Konstituzionalak aintzatesi egin zuen kektxi herriak alde zuzeneko baimen librea eta informatua emateko eskubidea. Bitartean, Oxec enpresako beste enpresa subsidiario batek kargu penalak aurkeztu zituen Caal Xolen aurka, eta hura presoaldi prebentiboan egon zen. Honako hau dio Nazio Batuen herri indigenen eskubideetarako errelatore berezi Victoria Tauli-Corpuz andreak: "Caal Xol jaunaren kriminalizazioa baino lehen hainbat difamazio-kanpaina egin ziren komunikabideetan. Azken horiek kriminal bortitza balitz bezala deskribatu zuten, nazioaren interesen kontra jardungo balu bezala".

Segurtasun-indarren basakeria

Guatemalako segurtasun-indarrek sekulako zakarkeria sistematikoa eragin jarraitzen dute dagoeneko finkatuta dagoen ordenari aurre egiten dion edozein erronka zanpatzeko. Indarkeria handiz irtenarazten di-

tuzte pertsonak euren etxeetatik, heriotzak eta zauriak sortuz, eta sexu-erasoak eta komunitateen ondasunak suntsitzen dituzte, normalean, segurtasun-agente pribatu laguntzarekin. Manifestazio baketsuak bortizki erreprimitzen dituzte eta legez kontrako atxilotzen dituzte defendatzaileak, lider ko-

munitarioak eta sindikalistak. Gero, inoiz egin ez dituzten delitugile gisa salatzen dituzte. Horren ondoren, Justizia Sistemak epai neurrigabeak ezartzen dizkie.

Indarraren muturreko erabilera horren kasuen artean dugu, esaterako, El Estor udalerriko Arrantzaleen Gremioak 2017ko maiatzaren 27an antolatu zuen manifestazio baketsua. Bertan, poliziak su-arma bidez hil zuen Carlos Maaz Coc baliabide naturalen defendatzailea¹⁵⁸. Manifestazio berean, poliziak bala-arma bidez zauritu zuen Alfredo Maquín arrantzalea¹⁵⁹. Urte bereko uztailean, UDEFEGUak salatu egin zituen San Rafael Meatzaritza Enpresaren El Escobal proiektuaren kontra manifestatu ziren defendatzaile, emakume eta umeen kontrako poliziaren kargak¹⁶⁰. Abuztuan, Hezkuntzako Langileen Sindikatuko 8 kidek, gutxienez, lesio larriak jasan zituzten poliziaren aldetik, euren laneko eskubideak modu baketsuan eskatzen zituzten bitartean.

Komunitate nekazariak eta indigenak ere basakeria berarekin irtenarazi dituzte euren etxebizitzetatik. Azken bi urteetan, Livingstonen eta Izabalen gertatu dira ekintzarik bortitzenak, eta beste bat Tactic herrian (Alta Verapaz). UDEFEGUaren arabera, "izugarri erreprimitu dituzte Chabil Choc eta Cumbre komunitateak. Komunitateko kideek zituzten etxebizitzak erre eta/edo suntsitu dituzte, eskura zituzten ondasun eskasak lapurtu dizkiete eta, jakina, gizon-emakumeen eta umeen osotasun fisikoaren aurkako erasoak egin dizkiete, hori guztia euren

157Gehiago:<https://www.europapress.es/internacional/noticia-onu-condena-criminalizacion-indigena-guatemalteco-bernardo-caal-xol-oponerse-presa-hidroelectrica-20181219171243.html>

158 UDEFEGUaren 2017ko txostena, 118. orria.

159 Berdina.

160 Uztailean, giza eskubideen defendatzaileen kontrako eraso batzuk salatu zituen UDEFEGUAK (Casillas izeneko herrian, Santa Rosa departamentuan); izan ere, horiek modu antolatuan eta

baketsuan uko egiten diote San Rafael Meategiko El Escobal meatzaritza-proiektuari. Karga horien artean, honako hauek ditugu: kriminalizazioa, polizia-indarraren abusua, gizon-emakumeen osotasun fisikoaren aurkako erasoak manifestatzeko eskubidea gauzatzeko ari ziren bitartean, eta udalerriko herritarren kontrako erasoak, Polizia Nazional Zibilaren elementuei eraso egiteagatik. Horien artean, bi adingaberi egin zieten eraso, bi hilabete eta 5 urte ingurukoak, hurrenez hurren. Ikus UDEFEGUaren 2017ko txostena, 9. orria.

161 UDEFEGUaren 2017ko txostena, 29. orria.

etxeetatik irtenarazteko¹⁶¹. Laguna Larga Komunitatean (Petén) ere euren etxeetatik bota zituzten, komunitatearen eta tokiko gobernuaren arteko negoziazio-mahaia gauzatzeko ari zen bitartean. Hiru gertakari horiek sekulako krisi humanitarioak sorrarazi zituzten.

Indarkeria are larriagoa da segurtasun pribatuko langileek parte hartzen dutenean, poliziak babes-tuta jarduten baitute, komunitateak euren lurretatik bota nahi dituzten enpresek eta multinazionalak ordainduta. Poliziako kideen eta zainzaile pribatuen jarduketa konbinatuak guztiz ezabatzen du interes pribatuen eta Estatuaren interesen arteko muga. Batzuetan, komunitateak euren lurretatik irtenarazi ondoren, hustutako onibarrak “zaintzen” geratzen dira langileak eta poliziako kideak, ad hoc jarritako kanpamentuetan¹⁶². Guatemalan, segurtasun pribatuko 182 enpresa daude eta horiek 45.000 “zaintzaile” baino gehiago dituzte (polizia-indarrak baino hamar aldiz gehiago)¹⁶³. Enpresa horiek 76.557 arma dituzte erregistratuta eta batzuek araudia urratzen dute. Gainera, uko egiten diete ikuskapenei¹⁶⁴.

Polochic Haranean —2011n gertatu ziren irtenarazteek nazioarteko lehen planoetara eraman zuten Guatemalako landa-eremuaren egoera—, indarkeriak bere horretan dirau. Gertakariak amaitu eta zortzi urtetara, gobernuak 2015ean hitzeman zizkien (nazioarteko presioari esker) lurren zain jarraitzen dute ehunka familiak. 2017tik ez dira kanporatze gehiago gertatu, baina UDEFEGUAK larderia, heriotza-mehatxu, difa-

mazio, bahiketa, desagerpen eta komunitateetako liderren hilketak ugari salatu ditu. Verapaces, El Estor, Izabal eta Petén Hegoaldeko

udalerrietan gertatu dira erasoak, Q’eqchi’, Pocompchi’ eta Achi’ herriar maiak eta mestizoak bizi diren lekuetan¹⁶⁵.

Lote Ocho

Lote Ocho komunitateko kanporatzeek (El Estor, Izabal departamentua) oso modu paradigmatikoa islatzen dute emakumeek Guatemalako segurtasun-indarren aldetik jasaten duten indarkeria. 2007an, Loteko zortzi emakume maia kektzik bortxaketa kolektiboak jasan zituzten euren komunitatetik irtenarazten zituzten bitartean. Emakume horien senarrak sorora joanak ziren lanera eta, une horretan, euren etxeetan sartu eta bortxatu egin zituzten poliziako kideek, militarrek eta Hudbay Mineral meatzaritza-enpresa kanadarraren eta haren subsidiario Compañía Guatemalteca de Níquel (CGN) enpresaren zaindarien (Erdialdeko Amerikako nikel-hobi handienetako bat esplotatzen ari ziren).

2011n, komunitateko hainbat lagun Torontora joan ziren Hudbay Minerals enpresaren eta Compañía Guatemalteca de Níquel (CGN) enpresa subsidiarioaren aurka hiru epaiketa abian jartzera. Kasua onartutzat eman zuten Torontoko Gorteetan eta, 2017an, bortxatutako 11 emakumeei entzun zieten.

2009ko irailean Adolfo Ich Chamán buruzagi karismatikoa hil izanaren erantzunkide gisa ere salatu zuten Hudbay. Germán Chub bera ere desgaitu egin zuten euren etxeak husteko legez kontrako saiakerara horretan. Angélica Choc ingurumen-defendatzaileak, Adolfo Ich jaunaren alargunak, ez du lortu bere senarraren heriotzarekin justizia egin dadila. 2017ko apirilean, Mynor Padilla, Hudbay enpresaren zerbitzura lan egiten zuen militar ohi bat, aske utzi zuten atearik itxita egindako epaiketa azkarraren ondoren (epaiketatik kanpo utzi zituzten nazioarteko begirale guztiak)¹⁶⁶. 2018an, hura absolbitu zuten epailearen kontrako prebarikazio-demanda izapidetzen hasi zen Justizia Gorte Gorena.

Meatzaritza-multinazionala salatzea garestia da ordea. Lote Ocho komunitateak eta María eta Angélica Choc defendatzaileek jasan dituzten presioak direla-eta, defendatzaileek euren bizitzak aldatu behar izan dituzte. Ángelicak hainbat lekutan bizi behar izan du gertakari jakin batzuen ondoren (esaterako, tiroak bota zituzten bere etxearen kanpoan).

162 2016an, El Murciélago finka (Polochic Harana) indarrez hustu zutenean, poliziako kideen talde bat hura “zaintzen” geratu zen zenbait egunetan, komunitateak itzultzen saiatzen baziren behar bezala jarduteko.

163 Oharra: Polizia Nazional Zibilak 40.000 agente ditu, horietatik 4.000 berriak.

164 Segurtasun Pribatuko Zuzendaritza Nagusiak (DIGESSP) jakinarazi duenez, segurtasun pribatuko 59 enpresak ez dute araudia

betetzen, 2017an egindako 185 ikuskapenen arabera. Gainera, horietako batzuek euren instalazioetara sartzea galarazi zieten ikuskatzaileei, eta beste batzuek ez dituzte betetzen ezartzen zaizkien zigorrak. Ikus NBGEGK, 11. orria.

165 UDEFEGUAREN 2017ko txostena, 9. orria.

166 Amnesty International: *Defendemos la Tierra con nuestra sangre*, 60. orria.



V. Kolektiboen eskaerak



Dominio Choc (ezkerrean) eta Javier Cuz Sacul herri-buruzagiak komunitateko kooperatibaren bulegoan lanean.

Lurraren eta lurraldearen gaineko euren eskubide historikoa aitortu dadila eskatzen dute herri indigenek, baita Biziera Ona eredu gisa aitortu dezatela eta arrazismoari, pobrezari eta desberdinkerari ordezko aukerak eman diezazkietela ere. Egunero jasaten dute enpresen instalazioak eragindako indarkeria, enpresa horiek euren lurrak kendu eta ingurumen-kalte larriak uzten baitizkiete, askotan, konponezinak.

Lizentziak emateko prozesuak gardanak izan daitezela eskatzen dute, kontsulta-prozesuetan baimena eman behar dutenean (emaitzak loteslea izan behar du), beharrezko informazio guztia izan dezaten. Gatazkei, ingurumen-kalteei eta pertsonen bizitzari eta osasunari sortutako kalteei aurrea hartzeko mekanismo instituzionalak egon daitezela eskatzen dute. Aginta-

riek, enpresek eta inbertitzaileek kontuak eman beharko lituzkete eragiten dituzten kalteengatik eta gauzatzen dituzten giza eskubideen urraketengatik.

Giza eskubideen defendatzaileen komunitateak eskatzen du jasaten duten indarkeriaren arrazoiak jorrratu daitezela eta babeserako eta konponketa integralerako mekanismo eraginkorrak sortu daitezela. Estatuak eskaintzen dituen txalekoek eta bizkartzainek ez dute ezertarako ere balio. Izan ere, Estatuaren segurtasun-indarrek manifestazio baketsuak zapaltzen dituzte, komunitate indigenak euren lurretatik indarrez kanporatzen dituzte eta gerra-garaian baleude bezala zaintzen dituzte.

Ezinbestekoa da agintariak gune demokratikoak ixten dituzten legeak ez onartzea eta, modu

aktiboan nahiz pasiboan, kolektiboaren estigmatizazioan eta difamazioan ez parte hartzea, pertsona guztien eskubideak defendatzen dituztelako eta gizateria moduan bizitzeko dugun lur bakarra zaindu dezagula eskatzen dutelako. Aske jarri behar dira espetxeratuta dauden defendatzaileak eta, horrez gain, artxibatu egin behar dira dozenaka defendatzaile bilatzeko eta atxilotzeko emandako aginduak.

CICIGen lanak emaitza garrantzitsuak izan ditu eta oso garrantzitsua da horiek iraunaraztea, herrialdea kaltetzen ari diren ustelkeriaren eta zigorgabetasunaren kontra borroka egiteko.

Azkenik, nazioarteko herrialdeen laguntza eta herritarren mobilizazioa eskatzen dute, enpresen jatuntsunari mugak jarri ahal izateko.



Keyla artoa ehotzeko prestatzen.

VI. Premiako hausnarketa



Rosendo Macu Chocoj (erdian, urdinez) edukiontziak urez betetzen bere etxera eramateko, beste batzuk uretan arropa garbitu edota bainatzen diren bitartean.

Guatemalan, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan bezala, denboraz larri dabilta. Ahula izateaz gain, Guatemalako demokrazia hondatzeaz dago, eta balio demokratikoak ere atzera egiten ari dira mundu osoan. Gobernu atzerakoiak sortzen ari dira eta joera hori oso albiste txarra izango litzateke Latinoamerikako demokrazia guztientzat, ingurumenarentzat eta, batez ere, emakumeentzat. Gorrotoan oinarritutako diskurtsoaren arrakasta irudikatzen dute, eta efektu kutsakorra dute kontinentearen gainerako herrialdeetan.

Egunero, Guatemala gobernatzen duten botere faktikoek eta segurtasun-indarrek defendatzaileak hiltzen dituzte, horien erakundeak kriminalizatzen dituzte eta euren lurretatik kanporatzen dituzte komunitate indigenak, guk guztiok partekatzen dugun Ama Lurraren zaindariak. Herrialdeak jasaten di-

tuen ingurumen-kalte larriek mundu-mailako narriadura islatzen dute, eta ezinbestekoa da leheneratzea. Mundu-mailako itun handiaren bitartez bakarrik egin ahal izango genioke aurre gabetzeetan oinarritutako kapitalismoaren eredu kaltegarri horri. Giza eskubideak defendatzen ditugun pertsonen eta erakundeen gero eta komunitate handiago honek indarrak batuta bakarrik egin ahal izango diegu aurre gorrotoaren diskurtso horiei, eta horrela baino ezin izango ditugu defendatu berdintasuna, askatasuna eta anaitasuna, hamarkadaz hamarkada segurutzat jo ditugunak.

Gure herrialdeetatik eta hirietatik neurri eraginkorrak hartu ditzakegu. Guatemalan lurrak kentzen dituzten eta giza eskubideak urratzen dituzten enpresek kapital europarra dute, baita estatubatuarra edo kanadarra ere. Guatemalako agroindustriak herrialdeko komunitate indigenak itotzen ditu, baina

palma-olioz egindako txokolate, izozki, margarina eta xanpuz hornitzen ditu gure supermerkatuak. Horiek guztiak espoliatuta dauden lurretan dute jatorria, milaka lagun jateko elikagairik gabe eta bizitzeko urik gabe geratzen diren bitartean.

Defendatzaileen kontrako erasoek ez dituzte pertsona horien familiak bakarrik kaltetzen; izan ere, horien erakundeak lermatu eta inolako babesik gabe uzten dituzte komunitateak. Gainera, elkarrekin bizitzeko eta planetan bizirauteko gure aukera kolektiboak murrizten ditu. Inoiz baino gehiago, gaur oso garrantzitsua da euren biziak arriskuan jartzen dituzten horiekin identifikatzea, natura errespetatuko duen eta indarkeriarik izango ez duen garapen-eredua defendatu ahal izateko. Ez dago denborarik galtzeko. Berreskuratu dezagun Inlakech izeneko hori, maiek beti esan izan duten moduan, ni zu bainaiz, eta zu beste ni bat.



Esteban Hermelindo Cux, Comité de Unidad Campesinako zuzendarien batzorde nazionaleko kidea Panzoseko bulegoan dagoen horma-irudiaren parean.

Bibliografia

Liburuak

- » Hurtado Paz y Paz, Laura: *La histórica disputa de las tierras del Valle del Polochic, Estudio sobre la propiedad agraria*, Serviprensa, Guatemala, 2014.
- » Palencia Prado, Tania: *Cero punto Cero, Estado de los derechos de los pueblos indígenas en Guatemala a 20 años de la firma de la Paz*, Serviprensa, Guatemala, 2017ko otsaila.
- » Segato, Rita Laura: *La guerra contra las mujeres*, Traficantes de Sueños, 2016.
- » Silva Santisteban, Rocío: *Mujeres y conflictos ecoterritoriales. Impactos, estrategias, resistencias*, Lima, 2017ko azaroa.

Txostenak

- » Nazio Batuen Batzar Nagusia: *Errelatore bereziak Guatemalara egindako bisitaren ondorengo herri indigenen eskubideei buruzko txostena, A/HRC/39/17/Add.3*, 2018ko abuztuaren 10a. Hemen: <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G18/246/46/PDF/G1824646.pdf?OpenElement>
- » Nazio Batuen Goi Komisarioak Guatemalan duen Bulegoa: *Los desalojos en el Valle del Polochic Una mirada a la problemática agraria y a la defensa de los derechos humanos de las comunidades q'eqchi'*, Guatemala, 2013.
- » Nazio Batuen Batzar Nagusia. Michel Forst errelatore bereziak giza eskubideen defendatzaileek bizi duten egoerari buruz egindako txostena: Informe sobre la situación de defensores de derechos humanos, A/71/281, 2016ko abuztua. Hemen: <https://undocs.org/es/A/71/281> <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N16/247/12/PDF/N1624712.pdf?OpenElement>
- » Nazio Batuen Batzar Nagusia. Michel Forst errelatore bereziak giza eskubideen defendatzaileek bizi duten egoerari buruz egindako txostena: Informe sobre la situación de defensores de derechos humanos, 2017, Michel Forst errelatorea (A/72/170), 2017ko uztaila. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N17/220/78/PDF/N1722078.pdf?OpenElement>
- » CEH (Argitze Historikorako Batzordea): Guatemala: Memoria del silencio, Unops, 1999.
- » CEPAL: *Informazioaren Eskurapenari, Partaidetza Publikoari eta Justiziaren Lorpenari buruzko Latinoamerikako eta Karibeko eskualde-akordioa*. Hemen: <https://www.cepal.org/es/acuerdodeescazu>
- » CICIgen hamargarren txostena, A/HRC/31/3/Add eta A/HRC/34/3/Add.1.
- » Soto Baquero, Fernando eta Sergio Gómez: *Reflexiones sobre la concentración y extranjerización de la tierra en América Latina y Caribe*, FAO, 2014.
- » FAO: *Lurren edukitze, arrantza eta basoen gobernantza arduratsurako borondatezko zuzentzarauak, elikadura-segurtasun nazionalaren esparruan*.
- » Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa: *NBGEK-k Guatemalako bere bulegoan betetzen dituen jardueri buruzko 2017ko txostena, A/HRC/37/3/Add.1*, 2018ko otsailaren 9a.
- » UNDP: *Más allá del conflicto Luchas por el bienestar. Informe Nacional de Desarrollo Humano 2015/2016*, Guatemala.
- » Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren OC-23/17 Kontsulta Iritzia, 2017ko azaroaren 15ekoa, Kolonbiako Errepublikak eskatua. Hemen: http://www.corteidh.or.cr/docs/opiniones/seriea_23_esp.pdf
- » SEGEPLAN, *Garapen jasangarrirako 2030eko Agenda: Borondatezko azterketa nazionala*, 2017, Guatemala.

Gizarte zibila

- » Amnesty International: *2016-2017ko txostena*.
- » Amnesty International: *Defendemos la tierra con nuestra sangre - Personas defensoras de la tierra, el territorio y el medio ambiente en Honduras y Guatemala*, 2016, AMR 01/4562/2016.
- » Amnesty International (Valiente kanpaina): *Ataques letales pero prevenibles -Asesinatos y desapariciones forzadas de quienes defienden los derechos humanos*, 2017, ACT 30/7270/2017.
- » CERIGUA: *Estado de Situación de la libertad de expresión 2018 Intolerancia oficial*, 2018ko azaroaren 30a. Hemen: https://cerigua.org/media/uploads/libertad_expresion/estado_de_situacion_de_la-libertad_de_expresion_en_guatemala_2018.pdf
- » Front Line Defenders: *2017ko txostena*.
- » Global Witness: *2017ko txostena*.
- » Global Witness: *¿A qué precio? Negocios irresponsables y el asesinato de personas defensoras de la tierra y del medio ambiente en 2017*, 2018.
- » Human Rights Watch *erakundearen 2018ko Munduko txostena*.
- » Emakumeen Erdialdeko Amerikako Ekimena: Emakume defendatzaileen egoerari buruzko 2016/2017ko txostena, *Defender para vivir*, Hondurasko Emakume Defendatzaileen Sare Nazionala, 2018ko maiatza.
- » Oxfam: *Situación de seguridad alimentaria y nutricional en las familias desalojadas en el Valle del Polochic*, 2015.
- » UDEFEGUA: *Por el derecho a defender derechos*, 2017ko txostena, 2018ko maiatza, Guatemalako Hiria.

Prentsa

- » García, Jody eta Martín Rodríguez Pellecer: *Todos cometimos delitos pero la CICIG no fue pareja*, Nómada, 2018ko urriaren 27a. Hemen: <https://nomada.gt/pais/entender-la-politica/todos-cometimos-delitos-pe-ro-la-cicig-no-fue-pareja-y-politizo-todo/>
- » Rivera, Nelson: *Ricardo Méndez Ruiz responsable de violaciones de derechos humanos*, Prensa comunitaria. Hemen: <https://comunitariapress.wordpress.com/2013/08/27/ricardo-mendez-ruiz-responsable-de-violacion-de-los-derechos-humanos/>
- » Rodríguez Pellecer, Martín: *Los militares y la élite La alianza que ganó la guerra*, Plaza Pública, 2013. Hemen: http://www.plazapublica.com.gt/sites/default/files/la_elite_y_los_militares_0.pdf
- » Sebastián Escalón: *Viaje al pueblo tras la Mina Marlin: la debacle económica y moral (1/2)*, Nómada, 2018ko abuztua. Hemen: <https://nomada.gt/identidades/guatemala-rural/viaje-al-pueblo-tras-la-mina-marlin-la-debacle-economica-y-moral-1-2/>
- » Veliz, Rodrigo: *Denuncias, demandas y un estado sordo*, Plaza Pública, 2015eko uztailaren 22a. Hemen: <https://www.plazapublica.com.gt/content/denuncias-demandas-y-un-estado-sordo>
- » *Prensa Libre*: CC sesiona y conoce nueve amparos contra el gobierno de Jimmy Morales, 2019ko urtarrilaren 8a. Hemen: <https://www.prensalibre.com/guatemala/justicia/suman-seis-acciones-en-contra-del-presidente-por-la-cicig>
- » *Guateavisión*: Jimmy Morales utiliza drama de familias para justificar expulsión de la Cicig, 2019ko urtarrilaren 10a. Hemen: <https://www.guatevision.com/noticias/nacional/jimmy-morales-utiliza-drama-de-familias-para-justificar-expulsion-de-la-cicig-bitkov-zimmeri-vielmann/>
- » BBC NEWS: *"Un golpe de estado en cámara lenta"*: la crisis que vive Guatemala con la expulsión de la CICG por el presidente Jimmy Morales, 2019ko urtarrilaren 9a. Hemen: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-america-latina-46805758>